

Gari, Montxo eta Joselontxo

Ume ugari batu zuten atzo Bergaran
KULTURA, 22



Aloñak eta UDAk 2-1 galdu dute

Mondrak 0-3 irabazi du Irun 1902 taldearen aukako partiduan
KIROLA, 12-13

Igor Arenaza

ESAITen asmoez berba egin digu
KIROLA, 19



ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2005eko abenduaren 12a • 2. urtea • 82. zenbakia • 0,90 euro

Zarzuela zaila izan arren, erronkari aurre egin zioten

'Baserria'-ren estreinaldian bete egin zuen aretoa Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak

OBRA ZAILA

Abesteko ez da lan erraza, baina duin defendatu zituzten Guridi maisuaren partiturak abeslariek

IKUSLEAK KONPLIZE

Familia eta lagunez goraino bete zen Amaia Antzokia zarzuclaren estreinaldian

GIROTZE BIKAINA

Dekoratuak eta jantziak aipagarriak dira; lantaldearen ahaleginaren froga garbia

Ia urtebete entseatzeko ibili eta gero, zapatuan estreinatu zuen *Baserria* zarzuela Arrasateko Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak. Guridiren obra ezagunaren euskarazko moldaketa egin dute eta emaitza atsegingarria izan zen. Datorren bariku eta zapatuan egingo dituzte azken emaldiak Amaia Antzokian. **26-27**



JOSETXO ARANTZABAL

EZKONTZA KONTUAK ETA HERRI BATEN KOMERIAK

Inazio Olaizola (ezkerrean), -'Santi', antzezlanean da- zarzuelako protagonista eta ahots nagusia. Bere buruhaus-terik handiena iloba ezkondu ahal izatea da eta horretarako Felix Ayala (eskuman) 'El secretario'-ren laguntza izango du. Azken horrek, baina, lagundu baino giroa nahastu egingo du, ikusleen barrea eraginez.

Truke Azoka egingo dute Arrasaten

Emakume Txokoak antolatatu du eta hilaren 14an hasiko da 9

Erdi Aroko San Migel ermita berreraiki eta ikusgai jarri dute Oñatin

 9

Sahararek laguntzeko janari batzea hasiko da asteen ibarrean

 9

Okupazio saialdi berria egin du OGA-k

Eraikina okupatu eta gutxira irtenarazi zituen Ertzaintzak asanbladakoak 6

KIZU
wear & ski experiences
Hernani kalea 17, DONOSTIA Tel.: 943 42 75 84
(Alderdi Eder ondoan)

DENDA BERRIA DONOSTIAN

ESKIAN ESPEZIALISTAK

ATOMIC, DYNASTAR, MATADOR, TSUNAMI, FIRE & ICE, KIDS

KIROLAK ZUBIAURRE
Florida kalea 2 GASTEIZ

PRESTA ZAITEZ SUPERMERTATU HOBERENEKIN GOZATZEKO

FALTA DIRA

3 egun

SUPER AMARA

SUPER AMARA • San Lorentzo Poligonoa • Amillaga Kalea 18 • Bergara

GEUREAN

- Harpide guztien artean Karibera bidai zozketatuko dugu hilaren 16an | 4
- 60 erretiratu batu ziren Elgetan Oskarbi elkartearen meriendan | 5



Alberto Trojaolarekin San Martin-San Jose kofradiaz jardun dugu | 6

DEBAGOIENEN KIROLDEGIEN PROIEKTUAK



JOSETXO ARANTZABAL

Oñatin eraikitzen diharduten eraikin berria zaharrena ondoan dago eta lanak bukatzean barrutik lotuta egongo dira.

BI URTETAN AMAITUTA | BERGARAKO DATORREN URTEAN ETA OÑATI ETA ARRASATEKOAK 2007AN AMAITUKO DITUZTE

Bi urtetan gertu izango dira eskualdeko kiroldegi nagusiak

Oñatiko Zubikoa, Bergarako Agorrosin eta Arrasateko Musakola kiroldegiak berrituko dira. Elgetan, pilotalekua konpontzen ari dira eta kantxa zabalduko dute

Marijo Deogracias

Gipuzkoako Foru Aldundiak 3.814.000 euro inbertitu ditu Debagoieneko kirolguneetan legegintzaldi honetan: Bergarako Agorrosingo igerilekuan, Arrasateko Musakolako kiroldegian eta Mojategiko pistetan, Oñatiko Zubikoa kiroldegian eta Elgetako kirol instalazioetan. Iñaki Ugarteburu Foru Aldundiko kirol

zuzendariak adierazi digunez, "legegintzaldi hasieran herriz gairako erabilera zuten azpiegiturak hobetzeko proiektuak diruz laguntzea adostu genuen eta gure bailaran bi jardura onartu genituen: Bergarako eta Arrasatekoa". Diruari dagokionez, Bergara izan da, Tolosarekin batera, diru gehien jaso duen proiektua, "biak zirelako Gipuzkoako instalaziorik zaharrenak eta eraberritze lan

osoa egin behar zutenak; 2,1 milioi euro jaso ditu Bergarak", azaldu digu Ugarteburuk. Beste hainbat herritan, kanpoko instalazioak hobetzeko, 1,5 milioi euro jaso dituzte, Arrasate tartean.

BIGARREN FASEAN OÑATI

Aurten "aukera egon da beste proiektu batzuk laguntzeko eta herri txikiak azpiegiturak aukeratu dira. Hortxe sartzen da Elgetara bideratutako laguntza, 200.000 euro", azaldu digu kirol zuzendariak.

Laguntzen haritik, oñatiarrak jasoko dute laguntzarik txikiena, proportzioan, eta ez daude batera ados. Oñatiko kirol zinegotzi Joseba Agirrek adierazi digunez, "Foru Aldundiak 14.000 euro baino ez ditu bideratu Oña-

tiko kiroldegira. Gurera partida hain txikia bideratzeagatik gure kexa plazaratu nahi dugu Aldundiaren aurrean". Ugartebururi

Arrasate atletismoko gune izango da pistak egin ostean

3,8 milioi euroko laguntza bideratu du Aldundiak ibarreko kirolguneetara

galdetuta zera azaldu digu: "golf zelaiarekin sartzekoak ziren Oñatikoak legegintzaldi hasieran onartutako laguntzetan, baina gertu ez eta herriz gairako erabilera kirolguneetatik kanpo geratu zen. Oñatira bideratutako laguntza Aldundiko ohiko aurrekontutik atera da".

ERABILERA MANKOMUNATUA Debagoiena eta Buruntzaldea, Gipuzkoan erabilera mankomunatu duten eskualde bakarra dira. Erabiltzaile kopuruari dagokionez, "maila handia duen eskualdea da, ez diogu inori inbidia izan beharrik. Gainera, atletismoko pistak eginda geratzen direnean Arrasate bihurtuko da atletismoko zentro", dio Ugarteburuk.

DEBAGOIENENKO KIROLDEGIEN PROIEKTUAK

• GAUR EGUN LAU KIROL GUNE BERRITZEN ARI DIRA DEBAGOIENEAN



ELGETA. Udal pilotalekua berritzeko lanak aurten hasi dituzte, uztail bukaeran. Patxi Basauri alkatearen esanetan, martxa onean doaz eta martxo erdirako bukatuta egongo dira. Berrikuntzarik nabarmenena teilatuaren konponketa da. Uralitazkoa zen zaharra eta hura kendu egin dute. Berriak egurra du azpiko aldean eta isolatzailearen gainean teilak. Horrekin batera, ezker pareta igo egin dute, argiteria berria jarri eta baita berogailua ere. Gainerako instalazioetan ere berrikuntzak egingo dituzte eta gune guztia irisgarritasun planetara egokitu. Aurrekontua 721.000 euro inguru da.

ARRASATE. Musakolako kiroldegi berrituak errugbi eta futbol zelaia, atletismo, tenis eta padel pistak, skate parkea, auto telegidatuendako pista eta patinatzeko pista izango ditu. Hori guztia dago ikusgai kiroldegiko sarreran dagoen maketan. Jada hasita daude lanen lehenengo fasean (80.000 metro kubiko lur ateratzeko lanak). Hogeita bat hilabeteko lanak sinatu ditu Arrasateko Udalak Madrilgo Corsan Corviam eta Azpeitiko Antzibar enpresek eraturako Deportivas Arrasate aldi baterako enpresarekin. Aurrekontua: 7.666.639,5 euro.



OÑATI. 2007ko urtarrilera arte luzatuko dira Zubikoa kiroldegiko lanak, eraikin berriaren azpian egin duten aparkalekuak lanak beranduxeago hasita ekarri zuelako. Eraikin berriak batetik kantxa nagusia, hiru kantxa txiki eta rokodromoa izango ditu, bestak beste; eta, bestetik, aldagelak, takilak, sauna eta gimnasioa. Oraingo eraikina ere hortxe geratuko da eta hiru zatiak lotuta egongo dira barrutik. Gaur egun, 4.500-5.000 bazkide ditu Zubikoak, baina erabiltzaileak askoz ere gehiago dira, izan ere, federatuak, ikastetxeetakoak eta ikastaroetakoak ere aritzen baitira.

BERGARA. Igerileku bi izango ditu Agorrosingo kiroldegiak. Handia 25 m. luze eta 21 m. zabal izango da (10 kale) eta txikia 19 luze eta 5 m. zabal. Horrez gainera, 3 gimnasio (180, 150 eta 100 m²-koak) izango ditu kiroldegiak. Bestelako erabileretarako gelak ere atonduko dira Agorrosinen; batetik, ikus-entzunezkoekin hornitutako 130 m²ko gela bat (mintegi, topaketa, bideo emanaldi eta bestelakoetarako) eta bestetik, klub erabileretarako bilera gela. Aurrekoak bezala, honek ere taberna-jatetxea izango du. Udalak 2006ko irailaren 16-17rako aurreikusitako inaugurazioa.



BergaraCars



Zure konfiantzazko multi-marka kontzesionarioa

BMW 120 D BERRIA
BMW 320 I BERRIA
BMW 320 D 2005
BMW X3 D BERRIA
BMW 320 D BERRIA
BMW M3 2003
VW TOUAREG HAINBAT

Aitziturri 1 • Bergara
T: 943 76 18 71 • F: 943 76 58 22
www.bergaracars.com
bergarcars@yahoo.es

VW PASSAT TDI 2003
MB ML 320 HAINBAT
BMW 320 D TOURING 2003
BMW 330 D TOURING 2002
AUDI A4 TDI AVANT ... BERRIA
AUDI A6 3.0 TDI BERRIA
AUDI TT 1.8T 2002



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

'Goienka2a' ataleko sei azal eta 'Asteleheneko Goienkariako' bost azal nagusik jaso dute saria.

Sariak 'Goienkaria'-ri eta 'Asteleheneko Goienkaria'-ri

Diseinuari dagokion aipamen berezia jaso dute Europako Egunkarien Elkartearen sariketan tokiko agerkarien atalean

Asteleheneko Goienkaria

Asteon eman dira jakitera 7. European Newspaper Award prentsa diseinu sariak eta *Goienkariak* eta ASTELEHENEKO GOIENKARIA-k aipamen berezia jaso dute Euro-

pako tokiko prentsaren alorrean: lehenengoak, kultura eta aisialdiaren gaineko *Goienka2a* sailaren azalengatik (sei azalek jaso dute aipamena); bigarrenak, azal nagusiengatik (bost azalek jaso dute aipamena).

SARI UGARI

Oraingoa ez da izan lehenengo aldia bi aldizkariak nazioarteko saria eta aipamena jasotzen dutena. Sariketa berean, ondoen diseinatutako tokiko agerkarien artean lehen saria jaso zuen *Goienkariak* 2003an eta 2004an ere aipamen berezia jaso zuen. Urte berean, SND erakundearen (Society for News Design) diseinu lehiaketan ere aipamenak jaso dituzte bi urtetan.

Karibera bidaia oparituko dugu egubakoitzean

ASTELEHENEKO GOIENKARIA-ren harpidedun batek Dominikar Errepublikara bidaia irabaziko du egubakoitzean, hilak 16. Izan ere, Goienak bi lagunendako bidaia zozketatuko du harpidedun guztien artean. Dagoeneko 4.700 harpidedun inguru ditugu, eta harpidedun horien fideltasuna saritzeko egingo du zozketa Goienak. Zozketa egunera bitartean harpidedun egiten direnak ere sartuko dira promozioan.

Iberia agentziaren eskutik izango da bidaia, eta baldintzak agentziak berak ipintzen ditu. Sariaren barne honakoak sartzen dira: Madrildik Punta Canara joan-etorriko hegaldi berezia; lau izarretako hotelean egonaldia (bertarainoiko bidaia ere bai) dena barne; zazpi gau hotelean, bi oheko gelan eta bidaia-asegurua. Saria ezingo zaio beste bati pasatu eta urtebete izango du irabazleak bidaia egiteko.

Labur

Autonomia Erkidegoko enpleguaren %3,7 MCCkoa da

Eustat estatistikaren euskal erakundeak argitaratutako 2004ko enplegu datuen arabera, EAEko lanpostuen %3,7 MCC taldeko enpresetan aritu zen beharrean eta industria sektoreko lanpostuen %8,3 MCCn zeuden. Nafarroan, berriz, enplegu guztia-aren %1,4 dagokio MCCri; industria sektoreari dagokionez, lanpostuen %2,4 ziren MCCrenak. Bestalde, enplegu kooperatiboaren bultzatzaile nagusiak

Euskadiko Kutxa eta Eroski Taldea izan ziren, finantzaren eta banaketaren arloan, hurrenez hurren. 2004an 11.269 langile zituzten bien artean. Hortaz, MCC da Gipuzkoan lanpostu gehien sortzen dituen enpresa, 20.928 zuzeneko lanpostu; eta baita Bizkaian ere, 11.563. Aipagarria da, MCC kooperatibetan eta enpresa partaidetuetan enplegatutako 70.884 lagunetatik 38.524 Euskal Herrikoak direla.

EHNA erabiltzeko eskubidea aldarrikatu dute

Monika Belastegi

Zapatuan, Nazioarteko giza Eskubideen Eguna zela eta, Nazio-tasun Eskubideen Eguna deitu zuen Udalbiltzak. Hala, EHNA tramitatzeko mahaiak jarri zituen Bai Euskal Herriari taldeak ibarreko herri gehienetan, Antzuolan eta Elgetan izan ezik. Antzuolan hilaren 17an eta 18an egingo dituzte tramitaziook, udaletxean, 11:00-13:30 eta 18:30-20:00 (18an goizetik bakarrik) ordutegian. Elgetan, berriz, hilaren 17an izango da, udaletxean, 12:00-14:00 eta 16:00-18:00.

EHNA eskatzeaz gain, eguneko beste ekintza nagusia izan

zen agiria erabiltzeko eskubidearen aldeko aldarrikapena sinatzea eta era berean, "euskal herritarren nazio-tasuna ukatua dagoela salatzea", bultzatzaileen esanetan. Zapatuan ekin zioten kanpainari eta datozen tramitazio egunetan eskuragarri jarriko dituzte aldarrikapen orriok sinatzeko. EBri aurkezteko aldarrikapena izango da.

Bestetik, Gabonen atarian gaudela aprobetxatuz, beste kanpaina bat ere antolatu dute EHNari indar handiagoa emateko; hain zuzen, agiriaren erabilera bultzatzeko *Olentzero*, *EHNA eskuan* lelodun kanpaina.



JOSETXO ARANZABAL

Antzuolan eta Elgetan hilaren 17 eta 18an egingo dira tramitazio bereziak.

Dagoeneko hasi dira Gabonetako argiak pizten

Herri guztietan jarriko dituzte apaingarriak eta asteon prest egongo dira

M.B.

Gabonen atarian gaude eta dagoeneko nabari da, besteak beste, Udalak hasi direlako gure herrietako kaleak apaingarriak janzten. Antzuolan, esaterako argiak eta Oñatin ere zapatuan piztu zituzten. Gainerako herrietan ere hasi dira apaingarriak jartzen eta asteon jarri- ta egongo dira ia herri guztie-

tan. Bergaran bihar, martitzena, piztuko dituzte argiak, Elgetan, egubakoitzean, Eskoriatzan ere asteon eta baita Gatzagan ere.

Apaingarriei dagokienez, herri gehienetan argiak jarriko dituzte eta batzuetan pinua eta jaiotza ere bai. Elgetaren kasuan, berrikuntza izango da aurten Patxi Basauri alkatearen esanetan: "Plazan argi gutxiago jarriko ditugu aurten eta ordainetan herriko sarrerak apainduko ditugu. Gatzagan ere izango da berrikuntzarik Jon Sasiain kultura zinegotziaren esanetan: "Apaindutako pinua jarriko dugu plazaren erdian, lorontzi handi baten. Eta horrez gain, Guraso Elkarteak jaiotza ere jarriko du ohi bezala".

Okupazio saialdi berria egin zuen Oñatiko asanbladak

Herrera taberna zengoen eraikina okupatu zuen asanbladak eguaztenean, baina egun horretan bertan irtenarazi zituzten

Jon Berezibar

Arratsaldeko seietan hasi ziren lokala atontzen, baina gauerako ertzainak agertu eta okupatutako etxetik kanporatu zituzten asanbladako kideak. Etxea utzi eta gero, egubakoitz eta domekan batzarrak egin dituzte, baita protesta-burrundara ere herriko kaleetan. Oraingoz, asanbladakoek ez dute ezer gehiago erabaki, baina ordezkariak azaldu dutenez ez dute 'beste okupaziorik egongo denik bazterten', okupatzeko etxean zerrenda ere egin dute.

EKINTZEKIN AUERRERA

Casablancako gaztetxea eraitsi zutenetik lanean jarraitu dute Oñatiko Gazte Asanbladako kide-



JOSETXO ARANTZABAL

Herrera taberna zengoen etxean egin dute OGAKoek azken okupazio saiakera.

ek eta Herrerako eraikinekoa izan da asanbladaren hirugarren saiakera. Ordu gutxi batzuk bakarrik egin ahal izan zituzten, hala ere, etxe okupatu berrian. Eraikinak urte asko zeramatzen hutsik eta orain gutxi arte beheko solairuko taberna bakarrik erabiltzen zen. Eguaztenean eraikuntza enpresa bateko ordezkariak agertu ziren eraikinaren

jabe zirela esanez eta gazteei etxea uzteko esan zieten, bestela ertzainei deituko zirela. Gazteek ezezkua eman eta gutxira agertu zen Ertzaintza.

Asanbladakoek adierazi dutenaren arabera, etxetik irtenarazi eta hainbat kide identifikatu zituzten, "NANA ez zeramatanak atxilotu egingo zituztela mehatxatuz".

• ELGETAKO OSKARBI ERRETIRATUEN ELKARTEA



JOSETXO ARANTZABAL

URTEA AGURTZEKO MERIENDA EGIN ZUTEN

Sekula baino lagun gehiago batu ziren zapatuan Oskarbi elkar-teak urteari agur esateko egiten duen meriendan; 60 lagun, hain zuzen ere. Elkartearen egoitza batu ziren eta txistorra, gazta eta bestelako pintxoak izan zituzten.

Labur

Propano isuriak ez zuen kalterik eragin Arrasaten egun gauean

Izarrako dorreko biltegi komunitario batean gertatutako propano isuriaren ondorioz Ertzaintzak gunea itxi behar izan zuen 300 metroan, eta taberna eta bestelako lokalak hustu zituen 21:15-23:30ak bitartean. Jaurralitzako Larrialdiei Aurre Egiteko teknikariek kontrolatu zuten isuria eta ez zuen kalterik eragin.



ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta SANYO etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabeteetan interes barik.



BERMEA 2 URTE
1.460 X
550 X
590 mm
B

HOZKAILUA 2FA255

255 €42.428 pta



BERMEA 2 URTE
1.850 X
598 X
590 mm
B

HOZKAILUA COMBI 2FAC495

375 €62.394 pta



BERMEA 2 URTE

ONTZI-GARBIGAILUA LEE-11

270 €44.924 pta



BERMEA 2 URTE
1.400 b/min
7 kgr.
A+A

GARBIG. XF7 1407 DG

355 €58.930 pta



BERMEA 2 URTE
LABEA H2-1401BN
BITROZERAMIKA
VAP1400
B

LABEA eta BITROZERAMIKA

298 €49.583 pta



BERMEA 2 URTE

TELEBISTA THOMSON
LCD 26" 26LB040S5

825 €137.268 pta



BERMEA 2 URTE

TELEBISTA SANYO
LCD 20" CE 20LC4


519 €86.673 pta



BERMEA 2 URTE

TELEBISTA SANYO
LCD 15" CE-ISLC4

369 €61.396 pta



BERMEA 2 URTE

TELEBISTETAN
ESKINTZA
BEREZIA

ERAKUSKETA
ALDAKETA!

ETIKETA ENERGETIKOA



Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.

Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoa 3, Roneo ondoan.

San Jose kofradiak 151 urte egingo lituzke datorren hilaren 21ean, baina badira urte batzuk San Martin kofradiarekin elkartu zela. Hortaz, egunean, Sortzez Garbiaren

egunean ohi denez, San Martin-San Jose kofradiaren batzar nagusia egin zuten aretxabaletarrek. Junta berria aukeratu zuten eta datorren hilean izendatuko dute

aukeratutakoen artetik lehendakari berria. Hileta zerbitzuak gestionatzen dituen kofradiako lehendakari kargua aurten lagako duen Albertorekin izan gara gu.

ALBERTO TROJAOLA | SAN MARTIN-SAN JOSE KOFRADIAKO LEHENDAKARIA

"Kofradian lurperatzeko zerbitzu osoaren kargu egiten gara"

Marijo Deogracias

Zendutakoaren familiari zerbitzua emateko asmoz sortu zen kofradia. Nola funtzionatzen du San Martin-San Jose kofradiak?

Bazkideek urtero kuota bat ordaintzen dute (12,5 euro) eta bi urtetik behin aldatzen den juntako kide izateko zerrendan sartzen dira. Horiek dira bazkidearen betebeharrak. Trukean, heriotzaren bat gertatzen denean, behar den zerbitzua jasotzeko eskubidea du bazkideak.

Eta, ze zerbitzu da hori?

Hilotzaren herriratzea heriotza herritik kanpo gertatu izan denean (beti ere Euskal Herrian bada), lur-ematea (kutxa, loreak eta herrian jartzen diren eskelak) eta 270 euroko dirulaguntza. Hori izaten da oinarritzko zerbitzua. Hortik aurrerako gastuari bazkideak bere poltsikotik egin behar izaten dio aurre.

Inoiz diru barik geratu izan da kofradia?

Gorabehera dezente egon izan dira Aretxabaletan, baina horrelakorik behin baino ez da gertatu: 1937ko akta baten jasota dago kofradiak defizita izan zuela, baina haiek beste garai batzuk ziren, gerra garaia zen.

Zenbat bazkide zarete San Martin-San Jose kofradian?

Gaur egun 4.377 bazkide gara; Aretxabaletan 6.000 bat lagun bizi garela kontuan hartuta, zenbaki polita.

Hortaz, bazkide guztiak herrikoak zarete?

Estatutuetan jasota dator Aretxabaleta herriko edo inguruetako auzoetakoak izango direla bazkideak. Dena dela, badira herritik alde egin duten bazkide batzuk ere.

Eta, jende berririk bazkide egiteko asmorik?

Orain arte ez dugu inolako kanpaina edo deialdirik egin. Jende multzo nahiko handia gara kofradiak bizirauteko. Hala ere, herrira jende asko etorri da bizi izatera eta bestetik, gazte batzuk hasita daude, titular izaten direnean, bazkide izaten jarraitu nahi ez dutela esaten. Hortaz, ondo legoke kofradia ezagutzera ematea herrian.

Titularrak aipatu dituzenez, etxeko kide guztiak izaten dira bazkide?

Ohikoena horixe da. Aita edo ama egiten badira, seme-alabak ere bazkide egiten dituzte. Gero, kontua izaten da, seme edo alaba horiek emantzipatzen direnean bazkide izaten jarraitu nahi izatea ala ez.

Egunean urteko batzarra egin zenuten.



Urtarrilera arte izango da San Martin-San Jose kofradiako lehendakari.

JOSETXO ARANTZABAL

Bai, urtero Sortzez Garbiaren Egunez egiten dugu kofradiako urteko batzarra. Bi urtetik behin junta aldatzen dugu eta horixe egin genuen joan zen egunean. Urtarrilean juntako zortzi kide berri horien artetik kofradiako lehendakari berria izendatuko

dute eta nik karguari utziko diot. Dagoeneko bete da nire epea.

Zaila egiten zaizue juntakideak topatzea?

Galdetu ere ez dugu egiten. Hainbeste bazkideren artean beti dago juntarako proposa den jendea. Gainera, aurretik juntan

izan dena zerrendatik kentzen dugu, berriz ere ardura izan ez dezan. Dena dela, egiteko oso erraza da gurea. Sasoi baten zerbitzu osoa eramaten zen kofradiatik, baina badira urte batzuk zerbitzua kontratatu egiten diogula ehorztetxe bati.

"1937an kofradiak defizita izan zuen, baina haiek beste garai batzuk ziren, gerra garaia zen"

"Emantzipatzen direnean seme-alaba batzuek ez dute bazkide izaten jarraitu nahi"

Durangon salgai

Patologia orokorra. Alai orokorra, amas aparatua eta zirkulazio-aparatua
Edurne Ugarte
52,50 €

Elementuen taula periodikoa (14 urtetik aurrera)
Eskuko taula (21x29,7 cm)
4 €

Hitzmix (12 urtetik aurrera)
CD-ROMa
29,95 €

Horma-lurdi (90x60 cm)
20 €

EUKLIDES. Elementuak
Pati Angulo Martin
36,50 €

Merkatua eta globalizazioa
José Luis Sampedro Iturrizalea
Eduardo Monasterio
12 €

Urpeko errelinua (6-12 urte)
CD-ROMa
27,45 €

liburuak • hiztegiak • aldizkaria • multimedia CD-ROMak • ikus-entzunezkoak • katalogoa

ELHUYAR FUNDAZIOA

Elhuyar Fundazioa
Zelai Haundi, 3 • Osinalde ind. • 20170 Usurbil • tel.: 943 36 30 40
elhuyar@elhuyar.com • www.elhuyar.org/denda

GURE IRRATIA BIDE GURUTZEAN

EUSKARAK eta GURE IRRATIAK BEHAR ZAITUZTE

Ipar Euskal Herrian euskararen desagerpena onartezina delako zure diru ekarpena beharrezkoa da:
-Euskadiko Kutxa 3035 0059 81 0590071330

GURE IRRATIA
Zure Irratia
106.6 - 90.5 FM

Gure Lokala



 **BERANGO**

LOGOS
ALTZARI INTEGRALAK

DEKORAZIOA, SUKALDEAK

Tel.: 943 79 01 92
Gipuzkoa etorbidea 1
20500 Arrasate

Muebles

Kabía

Altzariak

4 URTE
interes barik

Gipuzkoa etorbidea 23
20500 Arrasate
Tel./Faxa: 943 79 27 70



Albiste izango da

ARRASATE | HILAREN 14TIK 21ERA

Gabonetako Truke Azoka egingo du Emakume Txokoak asteen

Emakume Txokoak truke azoka antolatu du Gabonen atarian. Eguaztenean hasiko da eta herritar guztiak gonbidatzen dituzte. Trukean oinarrituko da eta kontsumoaren inguruko hausnarketa bultzatzea du helburu. Horrekin batera, berrerabilpenaren aldeko apustua ere egin nahi dute. Azokan parte hartzeko baldintza bakarra da prest egotea bi edo hiru gauza trukatzeko. Arropak, liburuak, apaingarriak... eraman daitezke (hilaren 14ra bitartean jasoko dira). Informazio gehiagorako deitu 943 79 41 39 telefonora edo bulegora jo (Otalora kalea, 10 bis).

OÑATI | BISITA GIDATUAK EGINGO DITUZTE

Erdi Aroko San Migel errota inauguratuko dute eguaztenean

Berreraiki eta gero, eguaztenean inauguratuko dute San Migel errota. Ekitaldia 18:30ean izango da Oñatiko Turismo Bulegoan eta han egongo dira Jaurlearitzako Turismo Administrazioa eta Lehiakortasuneko zuzendari Mercedes Rodriguez, Diputazioko Kultura zuzendari Imanol Agote eta Andoni Gartzia Oñatiko alkatea.

Errotaren harira bisita gidatuak ere antolatu dituzte. Abenduaren 15etik 30era bitartean egunero egingo dituzte bisita gidatuak, 12:00etan eta 17:00etan eta zapatuetan 12:00etan (abenduaren 25ean itxita egongo da). Urtarriletik aurrera aurrez eskatutako bisitak egingo dituzte.

ARRASATE | HILAREN 17AN, 19:00ETAN

Jon Agirre presoaren aldeko manifestazioa deitu dute

Jon Agirre herri ekimenak prentsaurrekoa egingo du bihar, martitzena, Monterron jauregian, 18:30ean. Han Jon Agirre presoaren egoeraren berri emango dute eta zapatuetan, hilaren 17rako, antolatu duten manifestaziorako dei egingo dute. 19:00etan aterako da, udaletxeko plazatik.

Prentsaurrekoan egongo dira herri ekimenarekin batera: Arrasateko eta Aramaioko udal ordezkariak, EAJ, Batasuna, EA, EB-Berdeak, Aralar, ANV, Zutik, Herri Anitza, ELA, LAB, CCOO, EHNE, ESK, Segi, Askatasuna, Ikasle Abertzaleak, Gazte Asanblada, Kooperatibetako Presoen Aldeko Plataforma, Etxerat, Maritxu Kajoi Batzordea, Santamas Komisiñue, eta hainbat kirol talde.

ELGETA | 19:00ETAN IZANGO DA

Babes Ofizialeko Etxebizitzen gaineko batzarra bihar, Espaloian

Torrealdeko Babes Ofizialeko Etxebizitzen gaineko batzarra izango da bihar, abenduak 13, Espaloian, 19:00etan. Oraingoz 100 lagunek eman dute izena, baina batzarra irekia izango da, bertaratu nahi duen edozein herritarrendako. Besteak beste, zozketan parte hartzeko zein agiri aurkeztu behar diren jakinaraziko dute Udaleko ordezkariak. Horrez gain, Bizigune programaren bidez etxebizitza hutsak errentan emateko eta hartzeko aukera egongo da Elgetan. Interesatuak udaletxean jaso dezakete informazioa astelehenetan, 09:00etatik 10:00etara.

OÑATI | DOAN DA ETA 20 LAGUNENDAKO TOKIA DAGO

Alzheimer gaixoen tartekoendako ikastaroa antolatu dute

Lahar elkarteak *Dementia*, *Alzheimer* izeneko ikastaroa antolatu du (Eusko Jaurlearitzak diruz lagundutakoa da eta Oñatiko Udalak finantzatutakoa). Ikastaroa zuzenduta dago Gerontologia arloan lan egiten duten pertsonen eta gaixoen senitartekoen. Urtarrilaren 16an, 17an, 18an, 19an eta 20an izango da ikastaroa, 17:00etatik 20:00etara, Oñatiko kultura etxean. Izenemateari dagokionez, doan da.

Informazio gehiagorako edo izena emateko deitu: 943 47 41 82 (Marian Goenaga) edo 665 71 86 95 (Pedro Bilbatua) telefono zenbakietara. Gehienez 20 lagunendako tokia dago.

Hitzorduk



SAHARARI LAGUNTZEKO EKINTZAK DEBAGOIENEAN |

Hitzaldia egunean Bergaran, egutegiak salgai eta elikagaiak batzea

Saharari elkartasuna adierazteko hainbat ekintza antolatu dituzte Debagoienez. Bergaran Bubiher elkarteak sortu berri dute. Eguenerako, hilaren 15erako, hitzaldia antolatu dute kultura etxean, 19:30ean. Jose Piñas izango da hizlaria. Saharako egoeraren berri emango du Piñasek.

Bestalde, Sahararen aldeko egutegiak saltzen dituen Nubi elkarteak 10 eurotan. Erosten, deitu honako telefonoetara: 685 72 48 16, 685 72 48 17 edo 685 72 48 18.

Atuna, konpresak eta azukrea batzeko kanpaina aste honetan hasiko da Debagoienez.

ARETXABALETA |

• Presoendako produktuak batzen dihardute

Presoek bidaltzeko produktuak batzen dihardu parrokiak. Abenduaren 18ra bitartean egingo dute hori. Honakoak behar dituzte: plastikozko kati-luak; barruko arropa; galtzerdiak; telefonorako txartelak; hagineta pasta eta eskuila; kartazalak eta seiluak; bainurako xaboia eta desodorantea; paperezko mukizapiak; azazkalak mozteko tresna; pilak; eta turroi biguna. Produktuok Caritasek banatuko ditu.

ARRASATE |

• 1955ean jaiotako bazkaria

1955ean jaiotako arrasatearrek batera bazkalduko dute abenduaren 17an Sara jatetxean. Interesa dutenek 50 euro sartu behar dituzte Euskadiko Kutzako honako kontu korrontean: 3035 0047 1604 7106 6211. Mugaeguna gaur, hilak 12.

• Uribarriko erretiratuak

Donostiara joango dira Uribarriko erretiratuen elkarteak Donostiara irteera antolatu du hilaren 21erako. Bestalde, egunean, hilaren 15ean, zozketa egingo dute, 17:00etan.

• Hainbat ekitaldi

Txatxilipurdiren eskutik

Hitzaldia: *Nola aukeratu jostailu egokia*. Abenduaren 14an, Okendo ludotekan, 18:00etan;

abenduaren 16an, marrazki lehiaketako sari banaketa Santa Marinako ludotekan, 17:30ean; abenduaren 17an Bilboko Gabonetako parkera irteera; abenduaren 20an eta 27an perkusio ikastaroa eta abenduaren 23an Gasteizko izotz pista irteera. Argibideak 943 79 54 46 telefonoz.

BERGARA |

• Arau subsidiarioen aurrerapena ikusgai

Udaletxeko osoko bilkuren artoan: aste barruan 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara dago zabalik erakusketa. Zapatuetan, berriz, goizez bakarrik.

• 1982an jaiotako afaria

1982an jaiotako bergararrek afaria egingo dute abenduaren 17an. Izena emateko azken eguna abenduaren 14a da. 25 euro sartu behar dira Euskadiko Kutzako kontu honetan: 3035 0009 1 9 009 0 07582 7.

• Urteko azken odol ateratzea

Bergarako Odol Emaileen elkarteak deituta, abenduaren 21ean izango da urteko azken odol ateratzea, Seminarioan, ohiko ordutegian.

ELGETA |

• Uraren autobusa Elgetan

Uraren autobusa iritsiko da Elgetara egubakoitzean, abenduaren 16an. Kutzak sentibe-

ratze-kanpaina egiten dihardu ura aurrezteko eta ez alferrik galtzeko. Horretarako, erakusketa ibiltaria antolatu dute. Ekimenaren helburuak dira uraren balio naturala ezagutaraztea eta hainbat ideia proposatzea etxean ura aurrezteko. Elgetako plazan hilaren 16an izango da 10:45etik 14:00etara eta 16:00etatik 19:45era bitartean.

• Kirola aztergai Elgetan

Elgetan kirola koordinatu eta sustatzeko lan taldearen eraketa egitasmoaren barruan bilera izango da abenduaren 14an kultura etxean, 19:30ean.

OÑATI |

• Odol ateratzea ostiralean

Abenduaren 16an Txantxiku ikastolan, 18:00etan.

• Ekitaldiak Pake-Leku elkartearen

Eguaztenean, hilak 14, film emanaldia egingo dute erretiratuen elkartearen. *Vaya con Dios* filma emango dute, 17:00etan, Eguenean, berriz, bingoa egongo da 17:00etan.

• Pake-Lekuren oharra

Oñatiko Pake-Leku egoitzak aditzera eman duenez, Pariserara egindako bidaiako bideoa eskuragarri dago. Interesatuak bidaia agentziako bulegora jo dezakete astelehen, eguazten edo egubakoitzean, 18:30etik 20:00etara.

GIPUZKOAK AIREBERRITZEKO PREMIA DU. GU AIRE FRESKOAREKIN GATUZ GOIZERO.

Egunkari plurala, irekia, integratzailea eta dinamikoa. Hemen bertan idatzia.

Azaroaren 24tik plazan.



Iritziak



Isilpekoak

943 25 05 01
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• Euri-putzuak

Asteon egin duen euria tarteko, pare bat txistu bidali dizkigu irakurle batek. Lehenengoa Oñatiko pasealekuaz eta bigarrena, dagoeneko ohitura bihurtzen ari den GI-2630 errepideari buruz: "Oñatiko parroikia ostean, ibaiaren ondotik doan pasealekuan, itzelezko putzuak sortzen dira eta asteon ere, pasabidetik igaro ezinda ibili gara hainbat oñatiar. Erreka aldeko harrizko hormatik edo lorategitik pasatzea baino ez zaigu geratzen, sortzen den putzua itzela izaten baita. Horrez gainera, GI-2630 errepidean, Citroen etxe parean, izugarritzko putzua egiten da euria egiten duenean. Errepide tarte horretan abiadura gehitxoago har daitekeenez, autoek bat-batean gutxitu behar izaten dute abiadura, errepide guztia hartzen duen putzua egoten delako leku horretan; eta jakina, *acuaplannig* egiteko itzelezko arriskua. Horren arriskua dagoela dioten seinalerik ez dago inon eta ondo legoke, hainbesteko sustotzarra hartu aurretik, dagokienei behar den moduan seinalezatzea arrisku hori.

• Arratoiak erreka bazterretan

Aretxabaletatik iritsi zaigu hurrengo txistua: erreka arratoiak direla eta, haserre dabilta Aretxabaletan, geroz eta maizago ikusten dira eta errekan arratoiak. "Hiru hilero neurriak hartzen dira arratoiak akabatzeke, baina hala ere, geroz eta gehiago dira erreka bazterretan ikusten ditugun arratoiak. Neurri egokiak zeintzuk diren ez dakit, baina ondo legoke denon artean gutxieneko neurri batzuk hartzea: zabor poltsak oraindik ere ikusten baitira errekan. Arratoiak jaten ematen badiegu, jai daukagu. Eta, agintariek hiru hilero barik gehiagotan hartuko balituzte beharrezko diren neurriak ez litzateke batere gaizki egongo".

Sarean harrapatuta

Nork irabaziko du Bertso Txapelketa Nagusia?

Dagoeneko jakina da zeintzuk izango diren aurtengo Bertso Txapelketa Nagusiko finalean. Honako zortzi hauek izango dira lehian: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Jon Maia, Igor Elortza,

Aitor Mendiluze, Unai Iturriaga eta Sustrai Colina. Hilaren 18an, domeka, izango da finala, BECen. Apustuak egiten hasi da jendea dagoeneko, eta *Goiena.net*-en ere egin dute galdera: Nork irabaziko du?

ITURRIAGAK ERAMANGO DU TXAPELA

Nire bihotzak dio Unai Iturriagak irabaziko duela. Eta buruak, bada, buruak ere bai.

Iban / www.goiena.net

AMETSEK LEHENENGO FINALA DU ORAINDIK

Hirugarren aldiz parte hartuko du Unai txapelketa nagusian, baina nik Maialen ikusten dut txapelaren azpian. Eta Andoni eta Unai, ondoan. Amets oso argia dela iruditzen zait, azkarra oso. Baina lehendabiziko txapelketa du eta hori da kontra izan dezakeen arrazoietakoa bat. Bestea, noski, arerioak, bera bezain onak guztiak. Erdiko postuetatik gora ikusten dut Amets.

Ines / www.goiena.net

ZAILA DA EGAÑARI TXAPELA KENTZEA

Egaña eta Lujanbio isilik egon dira orain arte, zuzenean finalean zeuden eta. Beste guztiak entzun ditugu kantuan eta liluratu ere egin gaituzte batzuek, Amets, adibidez, txundituta utzi nau ni. Baina Egañaren aldeko apustua egiten dut oraindik ere. Oso egun txarra ez badu bera izango da txapeldun laugarren aldiz, zaila izango da Egañari txapela kentzea.

Lolo / www.goiena.net

ALDE HANDIAREKIN EGAÑA IRABAZLE

Egaña izango da txapeldun! Seguru-seguru nago, bera da eta hautagairik onena! Gainera, alde handiarekin irabaziko duelakoa nago.

Mendiluze / www.goiena.net

AMETS IZANGO DA TXAPELKETAKO IZARRA

Ni Ametsen alde nago. Uste dut Amets izan dela txapelketa honetako izarra eta finalean orain arte eman duen maila emanaz.

gero bera izango da irabazle. Zaila izango da Egañari txapela kentzea, baina badu horretarako modua Amets. www.goiena.net

Aio / www.goiena.net

BIZKAITARREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUT

Nik bizkaitarren aldeko apustua egiten dut. Iturriaga eta Elortza pixkanaka gora eta gora doazela sumatzen dut eta finalean gora segitzen badute txapeldun izan daiteke baten bat.

Bizkai / www.goiena.net

FINALEKO NESKA BAKARRAREN ALDE

Neska izanik finalean dagoen neska bakarraren alde egingo dut. Baina ez neska delako bakarrik, uste dut Maialenek baduela Egañari txapela kentzeko adina talentu.

Neska / www.goiena.net

EGAÑA ETA LUJANBIO DIRA FAVORITOAK

Sustrai baino nahiago nuen Jokin Uranga edo Fredi Paia sartzea finalean, baina puntuak nik ematen ez ditudanez dagoenarekin konformatu behar. Hala ere, oso final ona izango dela uste dut eta favorito moduan Egaña eta Lujanbio ikusten ditut, aurreko txapelketako bi onenak.

Lupe / www.goiena.net

www.goiena.net

Eramango du Andoni Egañak Txapelketa Nagusiko laugarren txapela?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo www.goiena.net webgunera

Halaxe erantzun digute

Nazioarteko Giza Eskubiden Eguna izan zen zapatuan. Zergatik aldarrikatu behar da egun hori



NERE MONDRAGON | POBREZIA ZERO PLATAFORMA

Zerbait aldarrikatzeke dagoen errespetatzen ez delako da. Giza Eskubideen Deklarazioa 1.948an sinatu zen, gauza asko bezala idatzitakoa tiraderetan gorde zuten. Noizean behin agintariek hautsa kendu beharko lioke eta betetzen ez diren gauzetan lanean hasi.



IBAI REDONDO | EUSKAL HERRIAK BERE ESKOLA

Giza Eskubideen Eskutitzak nazio guztiek euren hezkuntza antolatzeke eskubidea dutela dio. Euskaldunoi espainola edo frantsesa inposatzen digute. EHBK euskal hezkuntza eraikitzeke eskubidea aldarrikatzen du, Euskal Curriculumua aplikatu eta euskal kultura transmititzeko.



IBON GABILONDO | EHNA

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko 15. atalak dio: gizaki orok du Naziotasun eskubidea. Gure eskubide hori urratua dago, Espainiako eta Frantziako naziotasunak inposatzen zaizkigulako. Hala, euskal herritar gisa bizitzeko, euskal herritartasun nazioagiriaren beharra ikusten dugu.



ELSA MANSO | SAHARAREN ALDEKO BUBISHER ELK.

Ez dut uste zapatuan egun hori izanda ere sahararrak lurralde okupatuera bueltatuko zirenik. Espainiako Gobernuak harreman oso ona du Marokoarekin. Hala, herritarrok izan behar dugu sahararren alde egin behar dugunak eta gero eta kontzientziatuago gaudela uste dut.

Egunkarietako harribitxiak

FEMINIZIDIOA GUATEMALAN

Guatemalan emakumea eta biktima izatea gauza bera da. Iaz 527 emakume hil zituzten, asko neskatok ziren eta kasuetako bat baino ez zen auzitegira eraman. Legea errudunen alde dago eta heriotzok emakumeen erruz izan direlako ustea zabaldu dute; merezi zutelako ustea, prostitutak zirelako.



'XL Semanal'
2005-12-11

HAURRAK EDUKITZEKO ARAZOAK


Gipuzkoan, urtero, 200 bat bikotek egiten dute in vitro ernalketa, Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera. Metodo hori aukeratzaren duten emakumeen artean %30ek lortzen du haurdun geratzea, batez beste, hiru ziklo osatu eta gero. Gero eta jende gehiagok aukeratzaren du lagundutako ugalketa, ez bakarrik antzutasun arazoak dituztenek, baita paraplejikoek edo tratamendu

onkologikoren bat dutenek ere. Hala, EAEko jaiotzen %2 lagundutako ugalketaren ondorio dira. Jaurlaritzak asteon esandakoaren arabera, Osakidetza finantzatu du 2006tik aurrera, semenaren garbiketa. Hala, VIH eramaileek (10.000tik gora EAEn), lagundutako ugalketa egin ahalko dute seme-alabei antigorputzak pasatzeko arriskurik barik.

'Noticias de Gipuzkoa'
2005-12-11



Tira, tira...



Martintxo 'Berria' | 2005-XII-11

Egunkarietan irakurri dugu

'Gara'

EGUTEGIRIK GABEKO SINADURA

Montrealek altxariak salbatu ditu Kyoto 2-rako jarduna aurreikusitako duelako. Baina, horren zehatza izan barik, beste akordioa izan da benetan arrakasta izan duena, hau da, estatu guztiek, Ameriketako Estatu Batuek eta Errusiak barne, planetaren berotzearen kontra onartu duten gutxieneko akordioa hain justu ere.

Editoriala
2005-12-11

'El Diario Vasco'

ALDAKETA KLIMATIKOAREN KONTRA

Narbona ministroak arrazoia du esaten duenean Espainian asko dagoela egiteko CO₂-ren emisioa murrizteko. Aldaketa klimatikoaren borroka ez da egun bateko kontua eta Akordioarekin bat egiteko garaia da. Borroka hori autonomia erkidegoetatik egitea garrantzitsua da, beti ere, modu koordinatuan eginez gero.

Editoriala
2005-12-11

'Deia'

LURRAREN DEFENTSAN

Txinaren hedatzea ere hasi da ingurugiroa kaltetzen, baina zinikoa da eskatzea harkundea gera dezala ingurumena ez kalteztzeko. Izan ere, badira hazten jarraitzen duten herrialde askoz garatuagoak. AEB kutsaduraz hitz egiten hasi izana positiboa da, orain arte arazo zegoenik ere ez du onartu eta.

Editoriala
2005-12-11

'Noticias de Gipuzkoa'

GUTXIENKO AKORDIOAK

"Nire balorazioa nahiko positiboa da, azken emaitzengatik baino, lehenengo aldia delako hainbat herrialdek konpromisoa hartu dutena gas kutsagarrien emisioa gutxitzeko. Orokorrean, akordioaren puntu interesgarriena da garapen bidean dauden herrialdeek lehenengoz erakutsi dutela borondatea".

Editoriala
2005-12-11

Zorroztailea



Feriaren alde eta kontra

Durangoko azoka.- Jorge Gimenez Alberdaniako editore eta Euskal Editoreen Elkarteko presidenteari "zer pentsatua" eman zion atzoko jende urritasunak. (...) Jende asko etortzen denean, gehiago saltzen da, hori matematikoa da. (...) Egilea bertan egoteak irakurle asko erakartzen duela gauza ziurra da, eta are gehiago egilea Bernardo Atxaga denean.

'Berria' | 2005-12-11

Elena Laka

Durangoko azokan ibiltzeak sortu zidan inpresioa bi gezurrez osatuta dago: zelako herri handian bizi garen! Zenbat euskalduni pizten dien interesa liburuek! Lehenengo objektiboki da gezurra: seiehun mila hiztuneko hizkuntza bat gara, gutxi. Baina horrenbeste jende pasioetan, horrenbeste lagun postuetara iritsi nahian, eta, kasualitatea, horren ezagun gutxiarekin egin nuen topo, ezen iruditu baitzitzaidan euskaldunak asko ginela, horrenbeste, elkarrekiko arrotz ere izatera ailegatu gintezkeela. Bigarrena ere gezurra da, hots, euskaldunak gure ondoan bizi diren hiztun espainiarren edo frantsesen antzekoak garelako: liburuetan interesa, tira, batzuek besterik ez, normala, bestalde. Gertatzen da hizkuntza txiki eta diglosiko bateko hiztun izateak egoera bitxi samarretara garamatzala sarritan. Esan dezagun

argi: euskarazko liburu gutxi irakurtzen ditugu. Galdetu liburu-denda eta liburutegi publikoetan.

Ez zait, baina, harrigarria iruditzen. Jendeak nahiago du futbola ikusi, korrika egin, txikiteatu. Normala. Euskal Herrian bizi diren seiehun mila espainol hiztunek zenbat irakurtzen dute gazteleraz? Antzeko-parecidotik urruti ez. Baina feria, feria da. Joan beharrekoa, eta, zer arraio, ondo pasatzen da. Horregatik bada ere, merezi du feriak. Eta joaten denak erosten badu, ba egin du gastua, eta horrez gain, irakurriko balu, orduan biribil. Irakurri eta ez irakurtzearen arteko muga Atxaga standean egon ala ez bada, zerbaitek huts egin du ordea. Alegia, hizkuntza normaletako teleberrietan Harry Potterren azken liburuaren argitalpena da albiste, beraz, gure hizkuntza txikiak Durango behar du.

"Esan dezagun argi: euskarazko liburu gutxi irakurtzen ditugu. Galdetu liburu-denda eta liburutegi publikoetan"

"Irakurri eta ez irakurtzearen arteko muga Atxaga standean egon ala ez baldin bada, zerbaitek huts egin du, ordea"

KIROLA

- Ford Mugarri berdinketarekin itzuli da Donibane liderraren aurkako jokaturako partiduan | 14
- Mugarri Alkesako mutilek 91-54 galdu dute Zizurren kontrako norgehiagokan | 15

Erabakita daude finalerdietara joango diren lau bikoteak Antzuolako pilota sariketan | 19

FUTBOLEKO PREFERENTE MAILAKO TALDEAK

Punturik gabe itzuli da UDA Trintxerpetik

Aretxabaletakoek kontrolatu zuten baloia, baina markagailua estreinatu ere, baina erabakigarriak izan ziren bi akats egin zituzten defentsan

TRINTXERPE

2-1

UDA

Trintxerpe | Auzmendi, Varela, Belintxon, Gonzalez, Goitiso, Carrera, Mauleon, Diez (Maraña, 56. min.), Garcia (Lasa, 88. min.), Infante (Plata, 86. min.) eta Rodriguez (Tamas, 63. min.).

UDA | Eriz, Sanchez, Erostarbe, Unamuno, Arizmendi, Arenaza, Urribetxeberria, Arrieta, Arriaga (Orueta, 66. min.), Garcia (Cocho, 74. min.) eta Rodriguez (Azkue, 79. min.).

Golak: 0-1, Imanol (15. min.), 1-1, Gonzalez (72. min.), 2-1, Garcia (88. min.).

Epailea: Javier Martinez jauna.

Larraitz Zeberio

Ondo aritu ziren Felix Recioreen mutilak Trintxerpen, baina bi akats egin zituzten defentsan eta bi gol sartu zizkien etxeko taldeak bigarren zatian.

Pena izan zen, Aretxabaletak irabazteko aukera izan zuen eta zapatu arratsaldean. Ondo kokatu ziren zelaian eta baloia jabe izan ziren lehen zati osoan. Lan onaren adierazle garbia izan zen Aretxabaletako taldeak norgehiagokaren 15. minutuan egindako gola. Imanol Rodriguezek egin zuen tantoa UDA-erendako.

Ondo hasi zen neurketa, baina ez zen Recioreen mutilek nahi bezala amaitu. Atsedendialdiaren



ARTXIBOA

Felix Recioreen mutilak izan ziren baloia jabe, baina etxeko taldeak eraman zuen garaipena.

ondotik etorri ziren etxeko taldearen bi golak. Trintxerpek eraman zituen jokoan zeuden hiru puntuak.

BIGARREN GOLAK IHES EGIN ZIEN

Bigarren zatia hasi bezain laster bigarren gola egiteko aukera garbia izan zuten aretxabaletakoek.

Ez zuten lortu eta hor egon zen partiduen gakoak. Sartuz gero neurketak beste norabide bat hartuko zukeen.

Kontuak kontu, gauza da berdintzeaz gain bigarren gola egitea ere lortu zuela etxeko taldeak. Lehenengoa bigarren zatiko 27. minutuan iritsi zen, eta korner bidez izan zen gainera. Ondo jaur-

titako baloia eta Trintxerpeko Gonzalezek ondo ikusitako burukada. Garaipenaren gola 88. minutuan egin zuen Trintxerpek. Beste defentsako akats bat egin zuen UDAk. Jokalariak ez zuten baloia ondo urrunditu eta ondo aprobetxatu zuen aukera Trintxerpeko taldeak.

Lastima izan zen, Aretxabaletakoek ondo jokatu zutelako.

Emankorra izan da asteburua Mondrarendako, jokoan zituen sei puntutik lau lortu ditu-eta

IRUN 1902

0-3

MONDRA

Irun 1902 | Muñoz, Muñoz II.a, Iglesias, Alvarez, Alberto (Goena), Sagrado, Iñaki (Mayor), Artetxe, Gomez, David (Azaldegi) eta Iglesias II.a.

Mondra | Oier, Markel, Aranbarri (Zubikarai), Lazpiur, Mercader, Ruben, Muxi (Aspiazu), Alzola, Ekain, Lopez (Heriz) eta Keixi (Arkaitz Garmendia).

Golak: 0-1, Alzola (2. min.), 0-2, Keixi (44. min.), 0-3, Zubikarai (75. min.).

Epailea: Silguero jauna. Txartel asko ateratu zituen, zazpi txartel hori eta bi txartel gorri, baina nahiko lan ona egin zuela esan daiteke.

Asteleheneko Goienkaria

Preferente mailako Irungo bi taldeak izan ditu Mondrak aurrez aurre asteburu luze honetan. Lau egunetan bi partidu jokatu ditu Igor Gordobilek entrenatzen duen taldeak eta jokoan zeuden sei puntuetatik lau eskuratu ditu. Ez da emaitza txarra kontuan hartuta arerioetako bat sailkapeneko lider argia dela eta Mondrak berdinketa lortu duela neurketa garrantzitsu horretan. Irun 1902 gairatzeak, aldiz, errazagoa zirudien, taulako azken postuetan dagoen taldea da-eta.

Nahiz eta azken emaitzak beste gauza bat adierazi, Irun 1902 ondo aritu zen neurketaren lehen zatian. Jokoa nahiko berdindua

izan zen. Zorionez, laster egin zuen Mondrak lehen gola eta atsedendira erretiratu aurretik iritsi zen bigarren tantoa. Gauzak horrela, lasaitasun handiagoarekin jokatzeko aukera izan zuen Arrasateko taldeak. Bigarren zatian Mondra izan zen jaun eta jabe Irungo futbol zelaian. Etxeko taldea behera etorri zen eta partidu amaieran emaitza zabaltea lortu zuten Gordobilen mutilek.

MONDRA 2-REAL UNION 2

Eguenean jokatu zuen Mondrak liderraren aurka. Bi gol egin zituzten Irungoek eta emaitza erabakita zegoela zirudien Mondrak berdintzea lortu zuen, partiduko azken 15 minutuetan Lopezek eta Keixik faltaz lortutako golei esker.



LZ

Eguenean, binako berdinketa lortu zuen Mondrak Real Unionen aurka.

PREFERENTE MAILA



ARTXIBOA

Oñatiarrek, bigarren zatian, Caminoren falta sumatu zuten.

Zelaiaren egoera txarrak jokoa baldintzatu zuen

MUTRIKU

2-1

ALOÑA MENDI

Mutriku | Osa, Lopez (Txurruka, 76. min.), Bengoetxea, Etxaburu, Akarregi, Landaribar, Zubiaurre, Basurko, Arreitunandia (Kaltzakorta, 89. min.), Prieto (Elezgarai, 84. min.) eta M. Otxagabia (J. Otxagabia, 79. min.).

Aloña Mendi | Idigoras, Sanchez (Maiztegi, 49. min.), Losada, Elgarresta (Aramendi, 76. min.), Igartua, Garai (Astola, 67. min.), Lopez, Olalde, Camino (Idigoras, 52. min.), Arregi eta Zubia.

Golak: 0-1 Camino (16. min.), 1-1 Zubiaurre (61. min.), 2-1 Prieto 876. min.).

Epailea: Berasategi jauna.

Arantzazu Ezkibel

Aloñari partidua aurreratzeak ez zion zorte onik ekarri. Mutriku-ren aurka 2-1 galdu zuten egue-nean Oruetaren mutilek. Aipatzekoa izan zen Mutrikuko San Migel futbol zelaiaren egoera. Euria zela-eta, lokatzez bete zegoen zelaia, eta honek jokoa eragin zuzena izan zuen.

DEFENTSAN SARTUTA

Norgehiagoka Aloñaren alde hasi zen. 16. minutuan Xabi Caminok partiduko lehenengo gola egin zuen, oñatiarrei konfiantza handia emanez. Orokorrean, aukera gutxiko partidua izan zen. Zelaiaren egoera zela-eta, baloi luzeak jaurti zituzten bi taldeek. Defen-

tsan ondo aritu ziren oñatiarrek, baina aurrera begira baloia ongi ateratzea zaila izan zen.

Atsedendialdiaren ostean, Aloñak Camino galdu zuen. Defentsak baloiak aurrera jaurti zituen, baina aurrean ez zegoen inor. Aloñakoak atzetik atera orduko, mutrikuarrek berriro ere erasoan ziren. Beraz, Aloñako defentsa atzetik atera ezinda egon zen.

Kontraeraso batean, Aitor Lopezek penaltia egin zuen; Zubiaurrek sartu zuen berdinketaren gola. 76. minutuan, Ander Prietok area ertzetik baloia jaurti eta 2-1 egin zuen. Azken minutuan, Robertok berdinketaren gola eskuetan izan zuen, baina baloia txarto kontrolatu eta jaurtiketa atezainak gelditu zion.

Samur nagusitu ziren bergararrak Donostian

SANTO TOMAS LIZEOA

1-4

BERGARA

A.G.

Bergarak erraz eskuratu zituen hiru puntuak Donostian. Emaitzak erakusten duen moduan (1-4) aukera askoko norgehiagoka izan zen zapatukoa.

Markagailuan Bergara aurreratu zen lehenengo. Partiduko lehen 45 minutuetan, norgehiagoka erabakitzeak aukera garbiak izan zituen Bergarak, baina baloiak ez zuten sareetan sartzerik nahi izan. Etxekoak entseaturako jokaldietan saiatu ziren, hauek ere zortetik izan gabe.

Bigarren zatian, talde donostiarraren berdinketa etorri zen. Baina mahoneroak, kikildu beharrean aurrera joan ziren partidua erabakiz. Bergararren aldetik, Txanpi (2 golekin), Imanol eta Ina izan ziren golegileak.

Emaitzak eta sailkapenak / Preferente maila

EMAITZAK	Puntuak	SAILKAPENA					
		J	I	G	B	GA	GK
Berio-Real Union	1-2						
Irun 1902-Mondra	0-3						
Anaitasuna-Allerru	2-0						
Hondarribia-Zestoa	1-1						
Trintxerpe-UDA	2-1						
Hernani-Touring	2-1						
Zarautz-Pasaia	1-1						
Ordizia-Orioko	4-0						
Mutriku-Aloña Mendi	2-1						
Beti Gazte-Idiazabal							
HURRENGOAK							
Berio-Irun 1902							
Mondra-Anaitasuna							
Allerru-Hondarribia							
Zestoa-Trintxerpe							
UDA-Hernani							
Touring-Zarautz							
Pasaia-Ordizia							
Orioko-Mutriku							
Aloña Mendi-Beti Gazte							
Real Union-Idiazabal							

Bigarren erregionala

Lider izateari eutsiko dio Antzuolak beste astebetetz

EIBARTARRAK

1-5

ANTZUOLA

Arantzazu Ezkibel

Antzuolak 5 gol sartu zizkion Eibartarrak-i domekan Unbe futbol zelaian. Garaipen honekin Antzuolak sailkapeneko lehenengo postuari eusten dio; aurren, 5 partidua irabazi, 4 berdindu eta

partidu bat galdu dute Josu Luisen mutilek.

AUKERAK ALFERRIK GALDU

Partiduko lehenengo zatian aukera mordoa izan zituzten Antzuolarrek. Baina zoriak alde batetik, eta atezainaren geldiketek bestetik, antzuolarren gol festa atzeratu zuten. Atzean aurrean baino hobeto moldatu ziren antzuolarrak. Defentsa ona egin zuten, aurkari balaioa area ertzean mugitzen utzi gabe. Atsedenera banakako berdinketarekin iritsi ziren. Josu Asensio izan zen antzuolarren golegilea.

Bigarren zatian, Antzuolak ez zuen barkatu. Amorruguztiarekin atera ziren Josu Luisen mutilek garaipenaren bila eta lanak bere ordaina izan zuen; Antzuolak 4 gol sartu zizkion Eibarko taldeari bigarren zatian.

GOL FESTA

Golak markagailura igo ahala, Antzuolak konfiantza hartu zuen eta futbol polita jokatzen hasi zen. Jokalariak gogoz gozatu zuten Unbe futbol zelaian. Golak Aitor Berraondo, Jon Gurutz Godai, Aitor Godai eta Jon Gurutz Alberdik sartu zituzten.



JOSETXO ARANTZABAL

Lehenengo zatian kosta arren, bigarrean etorri ziren golak.

• LEHENENGO TERRITORIALA

Etxeko taldeak jarrera oso ona erakutsi zuen partiduan

Lehen zatia parekatua izan zen, baina bigarren zati bikaina egin zuen Bergarak



Bergarako taldea berria da lehen territorialean baina mailari neurria hartu diola dirudi.

BERGARA
29-22
URNIETAKO

Bergara | Kapelastegi, Uribe (1), Agirre (3), Sanchez (1), Mujika (4), Pozo, X. Najera (1), I. Najera (1), Errasti, Zabaleta (2), Larrañaga, Lenisoro (4), Ugarte-txea (3) eta Plazaola (9).

Urnietako | Gutierrez, San Roman (8), Raposo (6), Errandonea, Urigoitia (3), Carracedo (1), Agudo (2), Rosco, Vicente (1), Rodriguez (1) eta Galarza.

Golak bost minuturo: 2-2, 4-4, 6-6, 10-8, 11-11, 14-12, 17-13, 19-15, 21-16, 24-17, 26-20 eta 29-22.

Larraitz Zeberio

Eguenean jaso zuten Urnietako taldearen bisita Jose Ignacio Muniategiren mutilek. Ondo aritu ziren. Taldeak jarrera ona erakutsi zuen kantxan, ez zuten markagailuan nahikoa aurreratu arte atsedenik hartu eta jokaldi politak ikusteko aukera eman zuten.

LEHEN ZATIA BERDINDUA

Maila bereko bi talde ziren aurrez aurre. Urnietako taldea Bergararen aurretik zen sailkapenean neurketa jokatu aurretik, beraz, partidua parekatua izango zelakoan geunden gehienok.

Horrela izan zen, batez ere lehen zatiko 30 minutuak. Joko erritmo azkarra jarri zuten hasieratik bi taldeetako jokalariek,

baina ezinezkoa zirudien markagailuan tarte nabarmena zabaltzea.

ETXEKOAK ONDO BIGARREN ZATIAN

Bigarren zatia hasi bezain laster lau puntuko alde zabaldu zuten etxeok. Urnietakoak markagailuari eusten saiatu ziren, baina erabakiorra izan zen une har-

tan Bergarako Jon Kapelastegi eta Jon Errasti atezainen lana. Urnietako ate aurrean, berriz, erabakigarria izan zen Mikel Plazaola eta Hodei Lenisororen lana. Lehenak Urnietako defentsa gainditu eta sei gol egin zituen. Bigarrena penaltiak jaurtitzeko arduraduna izan zen eta hiru egin zituen. Merezitako garai-pena eskuratu zuen taldeak.

• LEHENENGO TERRITORIALA

Berdinketa liderraren kantxan

DONIBANE
23-23
FORD MUGARRI

A.G.

“Ez da emaitza txarra, azken finean liderraren kantxan berdinketa lortu dugulako, baina onartu behar dugu gutxienez beste gol bat egiteko aukera izan dugula”. Ford Mugarri taldeko Andoni Arandoren hitzak dira.

Emaitza onak lortu ditu Arrasateko taldeak amaitu berri duen lehen itzulian. Bigarren postuan dago lehen territorialeko sailkapenean Ormaiztegiarekin puntutan berdinduta.

“Lehen zati txarra egin dugu Donibanen”, azaldu digu Arandok, “eta 11-5 galtzen gindoazen epaileak Donibaneko jokalaririk bat eta atezaina kaleratu dituenen. Bi minutu falta ziren atsedenaldirako eta 12-11ko emaitzara iristea lortu dugu tarte horretan”.

BIGARREN ZATIAN HOBETO

Tentsio handiko partidua izan zen; izan ere, bi taldeendako zen



Ormaiztegi izango du aurrez aurre Ford Mugarrik datorren astean.

garrantzitsua garaipena. Bigarren zatia parekatuagoa izan zen eta urduritasunak bere eragina izan zuen jokariengan. “Ber-

dintzea lortu genuen”, jarraitzen du Arandok, “aurretik ere jarri ginen, baina kale egin genuen azken hiru erasoetan”.

• 1. TERRITORIALA

Arrikruzek berdinketarekin amaitu du lehen itzulia

ORMAIZTEGI
25-25
ARRIKRUTZ ALOÑA

A.G.

Oñatiarrek 25-25 berdindu zuten zapatu arratsaldean Ormaiztegiaren aurka. Lehen itzuliko azken partidua izan zen Ormaiztegin jokaturakoa; Arrikruz Aloña sailkapeneko erdiko postuan amaitu du lehen itzulia.

Partiduari dagokionez, oso partidua izan zuten oñatiarrek. Iñigo Aranburu entrenatzaileak adierazi digunez, irabazteko moduko norgehiagoka izan zen. Hala ere, Aloña huts txiki batzuk izan zituen eta azkenean berdinketarekin konformatu behar izan zuten.

Aloñari lekua hartzea kostatu egin zitzaion hasieran. Baina behin kantxan kokatu zirenean, partiduen kontrola hartu zuten txantxikarrek eta partidua borobila egin zuten. Aipatzekoa da defentsan egindako lana, batez ere Aitor Zurutuza atezainak. Erasoan talde guztia ibili zen ondo; golak ondo banatutakoak izan ziren.

SAILKAPENAREKIN GUSTURA

“Lehen itzulian lortutako emaitzekin gustura gaude. Jokalari gazteak ditugun arren, txapelketa neurria ondo hartu diogu”, esan digu Aloñako entrenatzaileak. Bigarren itzulian lan hobea egingo dutelako esperantza ere erakutsi digu Iñigo Aranburuk.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHENENGO TERRITORIALA

Ormaiztegi-Arrikruz Oñatiko Kobak 25-25
Donibane-Ford Mugarri Arrasate 23-23
Bergara-Urnietako 29-22

BIGARRENGO TERRITORIALA

Arrasate Esku Baloi atsedena

GAZTE MUTILAK

Bergara atsedena
Aloña Mendi atsedena
Gatz Museoa Jakion atsedena

GAZTE NESKAK

Pulpo-Arrasate E.B. 18-06
Bergara K.E. atsedena
Verkol Aloña atsedena

KADETE MUTILAK

Aloña Mendi-Donibane atzeratua
Gatz Museoa Jakion atsedena

KADETE NESKAK

Verkol Aloña atsedena

• BIGARREN NAZIONALA

Zapatuan garaipenak ihes egin zien Eskoriatzakoei

ESKORIATZA

63-71

SALLEKO

Eskoriatza | Serrano, Laborda (6), Caceres (2), Baltzategi, Murillo (16), Usabiaga (13), Soriano, Exposito (18), Etxeberria (8), Agirrezabalaga eta Alarcia.

Salleko | Nanclares (3), Vaquero (3), De la Iglesia, Martin (18), Vaquero, Vega, Sañudo (5), Merino (15), Perez, Osuna (12), Yarritu (15) eta Sanchez.

Laurdenetako emaitzak: Lehenengo laurdena 19-17. Bigarren laurdena 34-41. Hirugarren laurdena 47-57. Laugarren laurdena 63-71.

Arantzazu Ezkibel

Partidua ondo hasi zuten arren, Eskoriatzako neskek ezin izan zuten norgehiagoka ondo bukatu. Azkenean 63-71 galdu zuten eta Javi Corbalen neskek etxeko zaleen aurrean garaipenik eskuratu gabe jarraitzen dute.

Norgehiagoka gogorra izan zen zapatukoa. Bi taldeek kantuan bere lekua ondo hartu zuten. Lehenengo minutuak etxeko-

tzat izan ziren; lehen laurdeneko partziala 19-17 izan zen eskoriatzarren alde.

Bigarren laurdenean azken partiduetan gertatu ohi zaiena gertatu zitzairen; aurkariek 3 saskiratze jarraian egin orduko, Eskoriatzako neskek behera etorri ziren eta partidua jabetza galdu zuten.

Partiduko partzialak hauek izan ziren: 19-17, 15-24, 13-16 eta 16-14.

MARKAGAILUAN ATZETIK

Atsedenera 34-41 galtzen iritsi zen etxeko taldea. Bigarren zatian indarberrituta atera ziren Eskoriatzako neskek. Defentsan lan ona egin zuten, errebote asko hartuz. Erasoan, berriz, taularen azpian ez ziren fin aritu eta sas-



JOSETXO ARANTZABAL

Eskoriatzarrek taula azpiko jokoan huts egin zuten.

kiratze oso garbiak huts egin zituzten. Kanpoko jaurtiketetan zorte handiagoa izan zuten eta horiei esker, markagailuan bi puntuta-

ra urreratzea lortu zuten. Azkenean, ordea, aldea handitu egin zen eta Eskoriatzak 8 puntugatik galdu zuen norgehiagoka.

Arrasatekoek partidu eskasa egin zuten Zizurren

VALSAY ARDOY

91-54

MUGARRI ALKESA

MARKAGAILUARI EUSTEA HELBURU

Bigarren laurdenean nabarmen zabaldu zuten aldea Zizurkoek. Hamahiru puntu jarri ziren aurretik. Arrasatekoek aldea murriztea lortu zuten eta 41-38 emaitzarekin iritzi ziren atsedenera.

Gauza bera gertatu zen hirugarren laurdenean. Hasieran, Mugarri Alkesakoek aldea mantentzea lortu bazuten ere, azkenean 14 puntu jarri ziren aurretik etxekoak. Azken laurdeneko lehen minutuak izan ziren Arrasateko taldearen hoberenak. Aurretik jartzea lortu zuten, baina gutxi iraun zuen. Laster joan ziren berriz ere 12 puntuko aldearekin. "Hemen irabazi egin genien 7 puntuko aldearekin eta galtzekotan ez genuen alde hori baino gehiagorengatik galdu nahi", esan zigun Gamarrak. Azkenean, 91-54 markagailuan.

Asteleheneko Goienkaria

"Agian, denboraldiko partidurik txarrena izan da", adierazi digu Mugarri Alkesako kapitain Jago-ba Gamarrak. Hasieratik jarri ziren aurretik nafarrak eta nahiz eta Arrasatekoak baino txikiagoak izan hobeto aritu ziren errebotean. Ezinbestekoa zitzairen garaipenak ihes egin zien.

Motibatua irten zen nonbait kantxara Zizurko taldea. Lehen minututik jarri ziren aurretik markagailuan eta lehen laurden amaieran 21-16koa zen emaitza.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHENENGO MAILA
Valsay Ardoy-Mugarri Alkesa 91-86

NESKEN BIGARRENGO MAILA
Eskoriatza-Salleko 63-71

SENIOR MUTILAK
S.T.L. Egaña-Candy 31-46
Dks-Aloña Mendi 60-63

SENIOR NESKAK
Alde-Zaharra-Aloña Mendi 34-38

GAZTE MUTILAK
Araneta atsedena

Mugarri Alkesa atsedena
Aloña Mendi atsedena

GAZTE NESKAK
Eskoriatza-San Patricio 20-0
Aloña Mendi-Añorga 56-28

KADETE MUTILAK
Mugarri Alkesa atsedena
Aloña-Mendi-GSB Acero 17-63

KADETE NESKAK
Bergara atsedena
Eskoriatza-Antigua Luberrri B 30-64

ARREGI
ARROZTEGIA



KONPONKETAK OROKORREAN ETA BERRIKUNTZAK

SUKALDEAK
HORMA
ARMAIRUAK
LEIHOAK
ATEAK
TARIMAK
ESKAILARAK

OSAGARRIAK
FLEX KOLTZOIAK
GRADULUX
PERTSIANAK

ERAKUSKETA

Bidekurutzeta, 38
Tel / Fax 943 76 31 03

ARROZTEGIA

Urteaga, 20
Tel / Fax 943 76 11 73

20570 BERGARA
carp.arregui@telepolis.com
www.goiena.net/blogak/arregi



Areto Futbola 05/06

Debagoienez 90 bat lagun aritzen dira astebururo areto futbolean

Sei talde federatu ditugu ibarrean; Eskoriatzan hiru, Oñatin bi eta Aretxabaletan sortu berria

Larraitx Zeberio

Gure ibarrean Eskoriatzan du egoitza nagusia areto futbolarak. Hiru taldetan banatuta, bertako Eskoriatza Kirol Elkartek 45 bat lagun mugitzen ditu asteburu kirol jardueraren bueltan. "Areto futbol sailak zortzi bat urte daramatza martxan", adierazi digu elkartearen lehendakari Manuel Nuñezek. "Azken bi urteak bikainak izan dira, goiko kategorietara igotzea lortu dugulako jarraian. Gaur egun, lehen taldea Nazional mailan dugu, hau da, futboleko hirugarren mailaren parekoan. Bigarren taldea Arabako kategoria handiaren arabera dabil eta, azkenik, gazte mailako taldea sortu dugu aurtengoa".

Aurrekontu handia mugitzen du sail honek. Lehenengo taldearen aurrekontua 15.000 eurokoa

da. "Etxeko jendearekin lan egitea erabaki dugu", adierazi digu Iñaki Corral entrenatzaileak. "Arrasate eta Aretxabaletako gazteak etorri dira aurtengoa eta esan daiteke gure lana Leintz bailara osora hedatu dela. Izan dugu kanpoko jendea fitxatzeko aukera, baina etxeko jendearekin lan egitea erabaki dugu".

BI TALDE OÑATIN

Aloña Mendi K.E.-ko areto futbol saila da Debagoieneko beterranoena eta 30 bat jokalaririk hartzen ditu bere baitan. Hasiera batean senior mailako taldea besterik ez bazuen ere, gazte mailako taldeak zazpigarren denboraldia du aurtengoa.

"Taldea seniorra mailaz igo da azken bi urteotan", gogoratu digu Gerardo Eskartza lehendakariak, "eta gazte mailako taldea kategoria nazionalan ari da aurtengoa". Bi erronkak dira garrantzitsuak Oñatiko elkartearendako. "Gazte mailako taldeak liga probintzian jokatu du orain arte, baina iaz bigarren sailkatu ziren eta liga nazionalera salto egiteko aukera izan zuten. Entrenatzailea eta jokalariek gogoz ikusi genituen eta egun Logroño, Castron, Bizkaian, Araban eta Iruñean jokatzeko dute".



ARTXIBOA

Areto futbolarak gero eta jarraitzaile gehiago ditu Debagoienez. Azken urteotan talde nagusiak mailaz igo dira.

TALDE SORTU BERRIA ARETXABALETAN

Herriko gazte koadrila baten ekimena izan da eta lehenengo denboraldia dute aurtengoa. Hamar lagun dira taldean, Aretxabaletako eta Eskoriatzako jokalariek guztiak. Gipuzkoako maila txikienean ari dira, baina igotzeko itxaropenarekin daudela adierazi digute. Aretxabaletako kirol etxean entrenatzen dira

asteen bi egunez. "Taldea sartzeko bi gauza eskatu genituen", esan digu Adrian Merino jokalariek, "areto futboleko aritzeko gogoia eta taldearekiko gutxieneko konpromisoa".

IÑAKI CORRAL | ESKORIATZA K.E.

"Mailari eustea da gure erronka aurtengoa"

Nazional mailako taldearen entrenatzailea zara. Zein helburu dituzue aurtengoa?

Maila mantentzea da gure erronka nagusia. Azken bi urteotan mailaz igo gara eta talde handiak ditugu aurtengoa aurrerantz. Gure aurrekontua da maila honetan apalena. Kategoria mantentzea lortzen handia litzateke.

Azken urteotan areto futbolarak gora egin du Eskoriatzan. Zein izan da gakoa?

Ez dago sekreturik. Lana egin dugu gogotik. Gero, zortea izan dugu jokalaririk talde polita sortu delako. Hasieran Eskoriatzako jendearekin bakarrik egiten genuen lan, baina orain Arrasate eta Aretxabaletako mutilak ere baditugu. Leintz bailarara zabaldu gara.



A.G.

Harrobia lantzeko konpromisoa ere hartu duzue.

Horrela da, aurtengoa sortu dugu eta gazte mailako taldea. 16-17 urte bitarteko mutilak dira eta guztiak Leintz bailarakoak. Garrantzitsua deritzogu harrobia lantzeari. Taldearen etorkizuna da.

GERARDO ESKARTZA | ALOÑA MENDI K.E.

"Bi mailei eustea da gure helburua orain"

Zeintzuk dira lehen taldearen helburuak aurtengoa?

Kategoria berri baten ari gara aurtengoa eta lehen helburua maila mantentzea da. Ondo hasi ginen, gero txarrera egin dugu, baina oraindik ere posible dela uste dugu. Eskarmentu handiko taldeak ditugu aurretik eta hori nabaritu egiten da.

Gazte mailako taldean harrobia lantzen duzue?

Lehen talderako jokalariek prestatzea da talde honen xedea. Jokalaririk asko futboretik etortzen dira, baina areto futbola oso ezberdina da. Teknika bestelakoa da. Urtero pare bat jokalaririk igotzen dira goiko taldera.

Areto futbolarak osasun ona dauka Oñatin?

Hemen ere futbola da



A.G.

kirol nagusia, baina baietz uste dut. Eskola kirolean areto futbola egiten dute umeek eta urtero pare bat mutil hasten dira gurekin. Arazoa da ez dugula kadeite mailako talderik eta infantil mailatik gazte mailarako jauzia handiegia da haien artean.

ADRIAN MERINO | ARETXABALETAKO TALDEA

"Helburua kirola egiten jarraitzea da"

Taldea sortu berri duzue. Nork bultzatu du?

Lagun koadrila denak gara futboleko arituta. Kirola egiten jarraitu nahi dugu eta elkartu egin gara areto futbol talde bat sortzeko. Gero, jende gehiago gehitu da taldera.

Zein helburu dituzue lehen denboraldi honetan?

Helburua ez zen emaitza onak lortzea, kirola egiten jarraitzea baizik. Orain, kategoriaren maila ikusita, konturatu gara agian aukerak ditugula mailaz igotzeko. Lortzen badugu bikain.

Babeslea ere lortu duzue. Entrenatzaileak, ordea, ez.

Bai. Eskerrak eman behar dizkiogu Mercedes etxeari, eta baita Orly tabernari, Urkuluri eta



A.G.

herriko hainbat elkarteri ere emandako laguntza-erengatik. Eta entrenatzaile fitxatuta dugu datorren urterako.

Baduzue jarraitzaile herriak?

Bai. Ezustea izan da, baina jendea etortzen da gure partiduetan ikustera.

DEBAGOIENENKO ARETO FUTBOL TALDEAK



ESKORIATZA K.E. (NAZIONAL B MAILA)

Goian, ezkerretik eskumara: Javi Fachal (delegatua), Iñaki Corral (entrenatzailea), Antonio Tena, Jokin Pavo, Borja Garcia (kapitaina), Iban Roa, Enrique Tena, Aitor Romero, David Garcia (delegatua) eta Narciso Pavo (Eskoriatza K.E.-ko areto futboleko koordinatzailea)

Behean, ezkerretik eskumara: Ivan Gómez, Arturo Robledo, Alain Gómez, Iker Gómez, Fernando Cubillo eta Alfredo Martins.



ESKORIATZA K.E. (ARABAKO OHOREZKO TXAPELKETA)

Goian, ezkerretik eskumara: Ivan de la Torre (kapitaina), Jonathan Valor, Manuel Muñoz (Eskoriatza K.E.-ko lehendakaria), Iban Roa eta Igor Etxenagusia.

Erdian, ezkerretik eskumara: Julen Expósito (delegatua), Sergio Souto, Emilio Gómez, Antonio Regaño (entrenatzailea), Harkaitz Jauregi, Cesar Gómez eta Carlos Sanchez (delegatua).

Behean, ezkerretik eskumara: Mikel Aramendi, Koldo Azkue eta Asier Souto.



ESKORIATZA K.E. (GAZTEAK)

Goian, ezkerretik eskumara: Alex Justel, Unai Perez, Iker Gómez (entrenatzailea), Jose Augusto, Ander Carrasco eta Gaizka Berasaluze.

Behean, ezkerretik eskumara: Iker Molina (delegatua), Joseba Bartol, Oscar Rebanal, Iban Sanchez, Ismael Vázquez eta Jonathan Galán (delegatua). Argazkian Aratz Kortazar eta Imanol Ramos falta dira.



ALOÑA MENDI K.E. (GIPUZKOAKO LEHENENGO MAILA)

Goian, ezkerretik eskumara: Roberto Maiztegi (entrenatzailea), Mikel Gorgoñon, Axibar Galdos, Joseba Zabaleta, Iker Aranburu eta Juan Carlos Nogueira (delegatua).

Behean, ezkerretik eskumara: Aitzol Guridi, Iñigo Ferreiro, Sergio Lopez, Ibon Ugarte eta Jon Urkia. Haritz Aranburu, Enaitz Perez, Mikel Madinagoitia eta Imanol Sanmiguel falta dira argazkian.



ALOÑA MENDI K.E. (GAZTEAK)

Goian, ezkerretik eskumara: Santi Bernal (entrenatzailea), Iban Azpeitia, Julen Arbolaza, Mohamed Salem, Urtzi Andres, Johan Arias eta David Sanchez (delegatua).

Behean, ezkerretik eskumara: Andoni Sanchez, Joxe Carlos del Rio, Eneko Garcia, Mikel Arriaran, Iban Agirrezabal eta Mikel Korkostegi.



UDA MERCEDES GOIKO LENIZ (GIPUZKOAKO HIRUGARREN B MAILA)

Goian, ezkerretik eskumara: Adrian Merino, Aitor Villar (atezaina), Aitor Oiarzabal, Ander Agiriano eta Lartaun Iturbe (atezaina).

Behean, ezkerretik eskumara: Martin Antxia, Mikel Castro, Joseba Fraile, Beñat Zubizarreta eta Unai Beitia. Argazkian Andoni Gomez falta da.

JON MURUAMENDIARAZ | ARRASATEARRA, BEASAIN FUTBOL TALDEKO AURRELARIA

"Batez besteko horrekin Realak 78 gol jasoko ditu"

Xabier Urtzelai

Hirugarren Mailarekin hasiko gara, Gernika-Beasain: 1-0.

Norgehiagoka txarra jokatu genuen atzo. Ez genuen gauza handirik egin, eta eurek falta jaurtiketa batean egin ziguten gola. Aurrealdean ibiltzea zen aurtengo helburua, eta 15. postu inguruan gaude.

Realari dagokionez, Riquelme txalotu zuten zapatuan Anoetan.

Merezimenduz, oso ondo jokatu zuen-eta. Baina, egia da erraztasun handia izan zuela bere jokoa egiteko, eta hirugarren golean geratu zen hori argi. Bakar-bakarrik utzi zioten jaurtiketa egiten, inork ez zion presiorik egin.

Emaitzei dagokionez, Realak ezin du lo jarraitu.

Gauza bat dago normala ez dena: zenbat gol jasotzen dituzten. Eskerrak gol gehien egiten dituen taldeen artean dagoela, bestela... Batez besteko horrekin jarraitzen badute, Liga amaিতu-takoa 78 gol jasoko dituzte.

Aste barruan berotuta ikusi dugu Eto'o prentsaurrekoan.

Pentsatzen duena esaten du horrek, baina ez dut uste beste munduko ezer esan duenik. Berak ere merezi zuela jokalaria onenaren saria jasotzeko finalean egotea. Egia da gol mordoa egin dituela, baina baita beste jokalaria batzuek ere: besteak beste, Vila-real taldeko Forlanek. Eta gero bota zuen talde onenean dagoela, diru mordoa irabazten duela eta ez duela zertan inbidia izan. Hori ere egia.

Osasunak Real Madrilen kontra jokatu du datorren jardunaldian.



Arrasatearrak Beasain taldean jokatzeko du.

Beldur barik jokatzeko aukera izango dute. Kontuan izan euren hasierako helburua betetzeko 10 puntu baino ez dituztela behar. Real Madrilen kontra dena daukate irabazteko, eta ezer ere ez galtzeko.

"Real Madrilen kontra Osasunak beldur barik jokatu ahal izango du"

Ronaldok esan berri du datorren Munduko Kopan atzean utzi behar duela Pelé.

Eta lortu egingo du, gainera. Bera da, egun, munduan dagoen aurrelaririk onena. Uste dut lau gol egin behar dituela Pelé-ren marka hausteko, eta ez dut uste Brasil lehenengo kanporaketan botako dutenik. Horrek esan gura du beste selekzio batzuk baino norgehiagoka gehiago jokatu dituztela, eta aukera izango duela gol horiek egiteko. Gainera, baliteke Ronaldo hurrengo Munduko Kopan ere egotea.

Harmailatik

Emaitza ez da dena



Xabier Urtzelai

Zer den larriena. Realak zapatuan jasotako porrota ez da horren mingarria. Amorrorturen mutilak ahalegindu egin ziren, baina talde hobeia izan zuten aurrean. Aurreko jardunaldietako berdinketak izan ziren mingarriagoak, nahiz eta puntu bana eskuratu. Horrek erakusten du emaitza ez dela dena. Dena dela, atzekoak gero eta gertuago eta Riesgoren atean gero eta gol gehiago. Hori bai dela larria, eta ez Vila-realen kontra galtzea.

Bi aurpegi. Nahiz eta norgehiagoka berean egon, eta emaitza biendako berdina izan, Athleticeko Bordasek eta Tarantinok partidu bateko bi aldeak erakusten dituzte. Biak hala biak datoz kategoria txikiagoetatik, indartsu jokatu irabazten den kategoria horietatik. Baina, indarra erabiltzen ere

jakin egin behar da. Bordasek lortu zuen Aimar, gehienetan, gelditzea. Tarantinok, berriz, lekuz kanpoko falta zakarra egin eta hamar jokalarirekin utzi zuen bere taldea. Bi jokalaririk horiendako ere emaitza ez da dena izan.

Oleguer. Bistan dago Bartzelonako atzelariak ez duela Espainiako selekzioarekin jokatzeko asmorik, ez diola grazia handiegirik egiten. Eta Madril aldeko egunkariak desiratzen daude hori gertatzeko. Aste barruan izan da Luis Aragonés *El Larguero* irratsaioa Jose Ramon de la Morenarekin. Espainiako hautatzaileak esan zion ez duela jokalarirekin horren gainean berba egin, baina uste duela Oleguer profesionala izango dela. Selekzioarekin ez joatea erabakitzen badu, zelakoak jaso behar dituen. Hori bai, Bartzelonako atzelariak ausarta dela erakutsiko du.



Josu Sarriegi

Alavesko atzelariak urrea balio duen gola egin zuen El Calderon futbol zelaietan. Banakoa izan zen, eta Falcon atezainarengatik izan ez balitz, Edu Alonsok egingo luke 1-2koa.



Chenge Morales

SER irrati katearen esanetan, aldagelara bidean Malaga taldeko Chenge Morales uruguitarrak muturrekoa eman zion Roberto Carlosi. Zelaian geratzen omen dira partiduan gertatutakoak.

Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

EMAITZAK

Osasuna-Mallorca	1-0
Atletico-Alaves	1-1
Getafe-Racing	1-2
Deportivo-Cadiz	1-0
Zaragoza-Celta	1-0
Betis-Espanyol	0-0
Malaga-R.Madril	0-2
Bartzelona-Sevilla	2-1
Valentzia-Athletic	1-1
Reala-Vila-real	1-3

HURRENGOAK

Vila-real-Getafe
Sevilla-Reala
Cadiz-Bartzelona
Celta-Deportivo
Espanyol-Zaragoza
Athletic-Betis
Alaves-Valentzia
Mallorca-At. Madril
R. Madril-Osasuna
Racing-Malaga

SAILKAPENA

	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1. Bartzelona	34	15	10	1	4	38	13
2. Osasuna	34	15	11	3	1	22	14
3. R.Madril	28	15	9	5	1	27	16
4. Vila-real	26	15	7	3	5	23	15
5. Deportivo	26	15	7	3	5	20	14
6. Valentzia	26	15	7	3	5	22	17
7. Celta	26	15	8	5	2	18	16
8. Sevilla	23	15	6	4	5	14	10
9. Getafe	21	15	6	6	3	21	21
10. Atletico	18	15	4	5	6	15	15
11. Reala	18	15	5	7	3	22	31
12. Zaragoza	17	15	3	4	8	15	18
13. Malaga	15	15	4	8	3	21	22
14. Racing	15	15	3	6	6	11	18
15. Mallorca	15	15	4	8	3	14	23
16. Cadiz	14	15	3	7	5	10	16
17. Espanyol	14	15	3	7	5	11	18
18. Athletic	12	15	2	7	6	14	20
19. Alaves	12	15	2	7	6	14	23
20. Betis	12	15	2	7	6	10	22




Kiniela

KINIELA

1. Betis-Espanyol	X
2. Zaragoza-Celta	1
3. Deportivo-Cadiz	1
4. Bartzelona-Sevilla	1
5. Reala-Vila-real	2
6. Getafe-Racing	2
7. Malaga-R.Madril	2
8. Atletico-Alaves	X
9. Osasuna-Mallorca	1
10. Castellon-Albacete	X
11. Numantzia-Murtzia	X
12. Tenerife-Levante	2
13. Valladolid-Eibar	X
14. Almeria-Gimnastic	2
15. Valentzia-Athletic	X

Euskal taldeen asteko hamaikakoa



Zapatuan eman zitzaion amaiera ESAITek azaroaren 18an Debagoiengan abiarazitako sinadura bilketa kanpainari. Lagun asko ibili dira ibarreko kirolari

federatuen artean sinadurak biltzen. Harrera oso ona izan dutela adierazi digu Igor Arenazak. Orain, Bilbon egingo den aldarrikapen festa prestatzen dabilta.

IGOR ARENAZA | FUTBOL JOKALARIA

"Euskal selekzioa bultzatu nahi dugu nazioartean eta kirol arlo guztietan"

Larraitz Zeberio

Nolako harrera izan du ESAITen kanpainak Debagoiengan?

Kanpainak harrera oso ona izan du gurean. Ez dakigu oraindik zenbat sinadura bildu diren, baina ibarreko eta Soralezeko elkarte guztietara jo dugu eta harrera oso positiboa egin digute. Esango nuke kirolari federatuen %80k sinatu duela ESAITen manifestua.

Mendi elkarteak, agian, gutxi landu ditugu denbora faltagatik. Murruxok, esaterako, 300 bazkide ditu eta ehun bat sinadura lortu ditugu. Besaiden berdin. 400 bazkide dira eta ehun sinadura lortu ditugu. Pena izan da.

Kirolari federatu guztiei zabaldu zitzaion deia. Kirolari famatuek ere parte hartu dute kanpainan?

Kanpainaren aurkezpen ekitaldira ibarreko kirolari asko etorri ziren. Ni Aretxabaletako sinadurak biltzen aritu naiz eta badakit Murruxiko elkarteko Alberto Inurrategik sinatu duela. Nirekin batera aritu diren beste kolaboratzaileen esanetan gauza bera gertatu da ibarreko gainerako herrietan ere.

Zergatik egin da ekimen hau? Beharrezkoa ikusten zenuten?

Duela bi urte inkesta bat egin zen hainbat kirol federaziotan Euskal selekzio baten gainean. Galdetutako %80ak baiezkoa eman zuen. Guk, orain, kirolarien iritzia bildu nahi izan dugu uste dugulako selekzioaren oinarria kirolariak direla.

Eta zein ondorio aurreratu daiteke Debagoieneko kirolarien iritzari dagokionez?

Sinadura asko bildu ditugu eta ibarreko elkarteetan egin diguten harrera oso positiboa izan da. Ateak zabalik aurkitu ditugu joan garen leku guztietan. Dena den, esan beharra daukat oraindik ere badagoela sinadura emateko aukera ESAITen webgunean, www.esait.org.

Euskal selekzioa eta Euskal Herriko federazio nazionalak aldarrikatzen ditu manifestuak. Zertarako?

Euskal nazioaren koloreekin lehiatu nahi dugu, bai txapelketa ofizialetan zein nazioartean. Eta hori kirol guztietan, ez alor konkretu batzuetan soilik.

Pertsona asko ibili zarete sinadurak biltzen. Hor ere lantalde bat sortu da?

ESAITen ekimenez ibarreko bospasei pertsona batu ginen eta



Igor Arenazak Aretxabaletan bildu ditu sinadurak.

OXEL EROSTARRE

"Harrera oso ona izan dugu ibarreko kirol elkarteetan. Esango nuke kirolari federatuen %80ak sinatu duela manifestua"

"Inork sinatu nahi badu aukera hori ematen duen www.esait.org webgunera jo besterik ez dauka"

"Abenduaren 23ko aldarrikapen festan sinaduren kontaketa egingo dugu eta hurrengo pausoak definituko ditugu"

saiatu gara Debagoiengan ahalik eta sinadura gehien batzen. Saiatu gara, bilera asko egin ditugu eta gure ustez emaitza hor dago. **Azkenik gonbit bat zabaldu behar dugu. Festa duzue antolatua abenduaren 23rako Bilboko Kafe Antzokian, ezta?**

Arratsaldeko 19:00etan hasiko da eta festa irekia da. Ahalik eta kirolari gehien batzea da gure helburua. Bertan sinaduren kontaketa egingo da eta ESAITek hemendik aurrera emango dituen pausoak azalduko ditu.

Festa hiru zatitan banatuko da. Lehenik eta behin ikus-entzuzko bat proiektatuko da, non ESAITen ibilbidea zein izan den gogoratuko dugun.

Ondoren, kanpaina izango da protagonista handia. Noiz hasi zen, zertarako egin den eta abar azalduko dira. Esan bezala, batutako sinaduren kontaketa egingo da eta kanpainaren inguruko datu orokor batzuk emango dira.

Azkenik, bertsolariak egongo dira eta selekzioaren inguruko gogoeta egingo dute. Kontzertua ere egongo da 21:00etatik aurrera Ene bada! taldearekin.

Antzuolako pilota txapelketa



JOSETXO ARANTZABAL

Sei partidu jokatu ziren zapatuan Antzuolan, lehen faseko azkenak.

Hilaren 17an, zapatua, jokatuko dira finalerdiak goizeko 11:00etan

L.Z.

Lau bikotek jokatuko dituzte datorren zapatuan Antzuolako pilota txapelketako finalerdiak. Sailkatu diren bikoteak hauek dira: Luis Larrea eta Jon Aranguren (69 puntu), Andoitz Aranburu eta Iker Irizar (66 puntu), Mikel Bargiela eta Jon Pagaldai (54 puntu), eta azkenik, Aitor Aranguren eta Felix Agirre (54

puntu). Azken honen ordezkari Xabin Muruamendiarek jokatu du finalerdia.

FINALERDI BORROKATUAK

Tanto gehien egin dituzten lau bikoteak sailkatu dira finalerdietarako. "Goizeko 11:00etan jokatu da lehen partidua. Bestera jarraian", esan digu Olalde elkarteko Bitorrek. "Partida politik izango dira, seguru asko".

Asteburuko emaitzak

Mikel Bagiola-Jon Pagaldai / J.S. Aristi-J.M. Aranburu	18-05
J.M. Iturbe-J.M. Mendizabal / Jon Arregi-Eneko Zabaleta	18-01
Patri Bideluze-Andoni Balerdi / Luis Larrea-Jon Aranguren	00-18
Mikel Urtzelai-J. Agirrebeitia / Mikel Muguruza-M.M. Jauregi	15-18
Joseba Lezeta-Juanjo Aranburu / Erik Lizarralde-Joseba Azkarate	18-09
Mikel Saralegi-Josu Agirrezabal / Aitor Aranguren-Felix Agirre	13-18

PILOTA PROFESIONALA



L.Z.

GONZALEZ ETA GOÑI III.A NAGUSI

Eguenean hiru pilota partidu jokatu ziren Bergarako pilotalekuan. Norgehiagoka garrantzitsuena Gonzalez-Goñi III.a (gorriz) eta Martinez de Irujo-Pascual (urdinez) bikoteek jokatu zuten izan zen.

45 minutu behar izan zituzten gorriek 22-11 nagusitzeko. 9 tantoko berdinketara iritsi ziren bi bikoteak, baina handik aurrera gora egin zuten gorriek eta ezinean ibili ziren urdinak. Aipatzeko atzealdean Goñi III.ak egindako lan ona.

KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- Hainbat margo erakusketa daude ikusgai ibarrean hile bukaera arte | 22
- Jon Sarasuak hitzaldia egingo du bihar, Bergarako Herri eskolen barruan | 27

Zeinuen hizkuntza ikastaroa antolatu dute urtarrilerako Bergarako Aransgi eskolan | 27

GURIDIREN 'BASERRIA' ZARZUELAREN ESTREINALDIA



JOSETXO ARANTZABAL

Espainiako *secretario*aren bisitak, irudian danbolinarekin, nahastuko du Baserría obrako herrixkatxoa.

ANTZERKI LIRIKOA | BERRIZ ERE ESTREINALDIAN ANTZOKIA BETETZEA LORTU ZUTEN IZASKUN MURGIA ELKARTE LIRIKOKOEK

Zarzuolak euskaraz ere funtziona dezakeela erakutsi zuten 'Baserría'-n

Amaia antzokia bete eta arrakasta izan zuen zapatuko estreinaldian Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak. Guridi maisuaren 'El Caserio' lanaren euskarazko moldaketa aurkeztu zuten

Jon Berezibar

Lehen emanaldietan ohikoa eta ulergarria den urduritasunarekin, baina konbentzimendu osoz egin zioten aurre Izaskun Murgia Elkarte Lirikoek Guridiren *El Caserio* lan ezagunaren estreinaldiari.

Bikoitza zen erronka taldearentzat; alde batetik, euskarazko moldaketagatik, eta bestetik, obrak berak dituen abesteko zailtasunengatik, ez da-eta *Baserría* melodikoki zarzuelarik errazenetakoa. Zapatuan, erronka bietatik airos irtetea lortu zuten elkartekoez, hamar hilabete luzetako entsegu gogorren emaitza defendatuta. Ikusleek, gainera, ikuskizunaz gozatu ahal izan

zuten barre eginez eta noizean behin kantu ezagunak baxu-baxu abestuta. Izaskun Murgiakoez bazekiten obra berezi hau arrastearren atseginezkoa izango zela eta asmatu zuten, Amaia antzokia goraino beteta zegoen-eta zapatu ilunkeran.

Pertsonaia asko komikoak eta gertukoak dira *Baserrían* eta hori da zarzuela honen gakoetako bat. Abesti ezagunekin eta herriko jendeak eginda are eta gertukoagoa egiten da Guridiren zarzuela ezaguna. Horrek ez du kentzen antzezleek lan fina egin zutenik; profesionalak ez izan arren fundamentuz bete zuten egin beharrekoa.

Aipatzekoa, era berean, obraren girotzea, dekoratzaile eta jan-

tzigileen meritua ere badena. Baserrí auzo paregabea irudikatu zuten Amaiako oholtzan eta jantziekin ere asmatu egin zuten. Nabari zen, bai abeslari zein gai-

nontzeko parte-hartzaileen eskutik ere, ez zela inondik inora aurkeztu zuten lehen ikuskizuna, eta testuarekin hasieran bat edo beste trabatu zen arren, Guridiri egindako zaletuen omenaldi polit askoa izan zen.

ASTEBURUAN GEHIAGO

Zapatuan estreinatu eta domekan ere egin zuten emanaldia. Guztira lau egingo dituzte, azkenak datorren asteburuan, egubakoitz eta zapatuan hain zuzen ere. Horren ostean datorren urteko ikuskizuna lantzen hasiko da Izaskun Murgia Elkarte Lirikoa. Hain zuzen ere, *La leyenda del beso* lan ezagunean oinarrituko dira hurrengo zarzuelarako.

Erronka bikoitza zen, euskaraz egitea eta obra ondo kantatzea

Ez da oholtzara igotzen diren lehen aldia eta hori ere nabaritu zen

GURIDIREN 'BASERRIA' ZARZUELAREN ESTREINALDIA

TERE GONZALEZ | IZASKUN MURGIA ELKARTE LIRIKOAREN ZUZENDARIA

"Orain arte zarzuelaz interesatu ez den jende asko erakarriko du euskarazkoak"

J. B.

Orain arteko erronkarik handiena izan da elkarterendako 'El caserío' lanaren euskarazko bertsioa. Estreinatua baino egun bat lehenago harrapatu genuen Tere, zuzendaria, azken xehetasunak lotzen.

Nola bizi dituzue lehen emanaldiaren aurreko azken ordu hauek?

Ondo, lan guztia egin dago. Jendea, hala ere, urduri dago eta apur bat baldin. Orain arte Arrasate Musikaleko egoitzan egin ditugu entseguak ia beti eta Amaia Antzokiari oraindik neurria hartu barik daude antzezleak; eta eszenatokia erdi muntatuta dago oraindik.

Arrasaten zarzuelaren zale nahikotxo dagoela ematen du. Gaur egungo gauza da?

Orain dela 40 urte ere egiten ziren zarzuelak herrian Artza-



ARTXIBOA

mendi anaiekin, eta makina bat lan oholtzaratu zituzten.

Talde polita batu duzue, ezta?

Ez dakit kalkulatu baina 120 bat lagunek-edo hartu dugu parte muntaietan. Kantu irakaslea naiz Arrasate Musikalen eta ikas-

le batek proposatu zidan ideia. Hasieran zalantzak neuzkan, baina azkenean ausartu egin ginen eta ikasleak eta inguruko jendea biltzen hasi ginen. Abeslari bakarlariak urtero aldatzen ditugu, obrak une bakoitzean dituen eskakizunen arabera.

Badarabilzue buruan hurrengo zarzuela?

Bai, hala da. *La leyenda del beso* izango da, Soutullo eta Vertena. Nahiko lan zaila izango da hau ere, baina ez *Baserría* bestekoa. Oso lan berezia izan da azken hau. Oso gurea da *Baserría*, San Joanen ereserkiarekin, prozesioarekin... oso gertuko da, eta gainera euskaraz egin ahal izan dugu.

Horrek orain arte zarzuelak erakartzen ez zuen jendea ekarriko duela uste duzue?

Baiezkoan nago. Euskaraz eginda aurreko aldietan etorri ez den jende asko etorriko dela uste dut, interesa piztu du behintzat.

NAROA ELORTZA | ANTZEZLEA ETA EUSKARATZAILEA

"Bi urtetako itzulpen lanaren emaitza da zarzuela hau"

J. B.

Zarzuela bat euskaratzea ez da lan erraza izango, ezta?

Hala da. Badaude esamolde eta hitz batzuk ezin itzul edo erabil daitezkeenak. Gainera, kontuan hartu dut taldean, adibidez, batzuek ez daukatela euskaraz behar bezalako erraztasunik eta haiengan pentsatuta ere egin dugu moldaketa. Baina lan polita izan da. **Gustura, azkenean, lortutako emaitzarekin?**

Bai, hobetu egin daitekeen arren, lan handia egin dugu. Bi urte egon naiz lana euskaratu eta guztia prestatzen eta oraindik ere zaila egiten zait amaitu dela sinistea. Lana agindu eta urte pare batez bete-betean ibili naiz lanean eta azkenean gaur ikusiko da emaitza. Euskararekin ere konpromiso handia izan da hau eta espero dut jendeak ere zentzu horretan ulertu ahalko duela.



J. B.

Lehen emanaldi honen aurretik urduri?

Oraindik ez, baina iruditzen zait asimilatu barik daukadala emanaldia hastear dagoela. Guztia hasten denean, orduan ikusi beharko dugu...

• ARTISTEN IRITZIAK AURRE-OIHALA JASO AURRETIK



MIKEL IZURRATEGI | 'TXOMIN'

"Moldaketa hau euskaraz izanda, errespetu handiagoa ematen du"

"Seigarren urtea da jada eta ez dago urduritasunik, ohituta gaudela. Hala ere, zarzuela hau euskaraz izateak apur bat errespetu gehiago ematen du, gauza gehiago zaindu behar dira. Jendeari asko gustatuko zaio euskarazko bertsioa ere".



KRISTINA CUBILLO | 'ANA MARI'

"Elkartean orain arte egin dugun obrarik zailena da estreinatuko dugun hau"

"Bakarleri moduan bosgarren aldia da hau zarzuelan parte hartzen dudana. Orain arte egin ditugunetatik, hala ere, zailena iruditu zait azken hau; obra, tesitura aldetik, altuagoa da eta erritmo aldaketa handiak dauzka. Oso polita da musika, gainera".



INMA ARMENTEROS | ILE-APAINTZAILEA

"Euskaraz izanda jendeari agian gertukoagoa egingo zaio Baserría moldaketa"

"Gustura ibiltzen gara makillatu eta orrazten, aktoreak apainapain uzten". Oso lanpetuta harrapatu genituen Inma eta lagunak antzezle eta parte-hartzaileak prestatzen. Lau laguneko taldea ibili zen makillaje eta ile-apaintketan.

• LEHENENGO IKUSLEEN IRITZIAK



ISABEL | MIRANDA DE EBRO

"Ez dakit euskaraz, baina musika aldetik oso obra polita da Guridirena"

Errioxatik etorri ziren lehenegusua ikustera, orkestrako zuzendaria da-eta. Euskaraz jakin ez eta gutxi ulertu arren musika oso atsegin zuela kontatu zigun Isabelek. Abeslariak ere lan polita egin zutela gehitu gura izan zuen.



SONIA | ARRASATE

"Girote lan benetan txukuna egin dute jantzi eta dekoratuekin"

"Jantziak eta dekoratuak asko gustatu zaizkit. Ez nuen espero eszenografia aldetik hain txukuna izango zenik. Zarzuela oso ondo girotuta dagoela iruditzen zait eta oso ondo abestu dute antzezleek ere orokorrean".

AMODIOZKO GUTUNEN XIV. BERRIGARA LEHIAKETA

SMS Bidezko IV. Maitasun Mezuen Lehiaketa

Antolatzailea



Laguntzaileak



Oinarriak:

Amodiozko gutunen XIV. Lehiaketa

- Adina: 15 urtetik gorakoendako
- Lanak: jatorrizkoak, argitaragabeak eta euskarazkoak, originala eta hiru kopia bidali behar dira
- Epea: urtarrilaren 5era arte
- Nora bidali: Jardun elkarte, Errotalde jauregia z/g, 20570 Bergara edo e-posta: kulturajardun@topagunea.com

SMS bidezko IV. Maitasun Mezuen Lehiaketa

- Persona bakoitzak mezu bakarra bidal dezake
- Mezuak jatorrizkoak eta euskaraz
- Epea: urtarrilaren 1etik 15era
- Nora bidali: 605 71 24 69 edo kulturajardun@topagunea.com

HAURRENDAKO IKUSKIZUNA | TXAN MAGOA ETA GARI, MONTXO ETA JOSELONTXO PAILAZOAK

Irudimena nahikoa da benetako magia egin ahal izateko

Non. Bergarako pilotalekuan.
Zenbat jende. 700 bat haur eta guraso
Iraupena. Bi orduko saioa egin zuten bi ikuskizunak tartekatuz.

J. B.

Begiak kliskatu ezarren, ez zen egon Txan magoa harrapatzerik. Ez behintzat berak hala gura ez bazuen. *Artxila mortxila*, euskal magoen *abrakada* da, oihuarekin gura zuena egiten zuen Txanek eta Bergarako neska-mutikoak aho zabalik. Ikuskizun benetan entretenigarria magoarena, Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoen hobetu besterik ez zutena egin.

Planteamendu klasikoa egiten dute pailazoen oholtza gainean: pailazo argia, bihurria eta tentela. Hala ere, gaur egungo haurrek ere algara ikaragarriak

egiten dituzte betiko pailazoen, denbora edo garairik ez duen umorea egiten dute-eta. Gainera, guraso asko ere konbentzitu zituen hirukoteak; tarteka entzuten ziren ahots helduagoen barretxoek hala salatzen zuten.

Bi ikuskizunak tartekatu egin zituzten pailazoen eta magoak; saioa arinagoa egin zen honela.

'ARTXILA MORTXILA'

Paperezko marrazkietatik benetako arrainak ateratzeaz edota zapi gorriak berde bihurtzeaz arduratu zen Txan, guztien harri-durarako. Bergarako frontoian

Pilotalekuan elurra eta guzti sortu zuen Txan Magoak Bergaran



elurra eta guzti egin zuen, baina inork gutxi lortu zuen mago berritsuaren trikimailuak asmatzea. Haurrekin jolastu eta konplize bihurtzen daki Txanek eta txikienek ondo baino hobeto pasatzen dute berarekin. Haur askok poltsikora begiratzen zio-

ten, baina hutsik zegoela ikustean, aho zabalik geratzen ziren. Berarekin oholtza gainean zeuden pailazoen, baina, ez zieten atsedetik eman Bergarako haurrei eta barre eta joko artean arratsalde ederra pasarazi zieten. Irudimena eta jolasarekin asko

lortzeko gai dira artista hauek eta ez daukate zertan beste pailazo ezagunagoen inbidiatan ibili beharrik. Ikuskizun klasikoagoa bai, baina irudimenez betetakoa aurkezten dute, eta hori ez da lan batere erraza.

ERAKUSKETAK | BERGARAKO MARGOLARIENA EGUBAKOITZEAN ZABALDUKO DUTE

Hainbat margo erakusketa dago ikusgai ibarreko areto eta bestelako guneeetan

M.B.

Hainbat artisten margolanak daude ikusgai egunotan ibarreko areto zein tabernetan. Arrasateko Harresi aretoan Gurutze Muxika margolariaren lanen era-

kusketa dago hilaren 18ra arte. Astegunetan, 18:00etatik 20:00etara eta zapatu eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Bestalde, Arrasateko Arregi markoztatze dendan, Maalako Errabalean, Javier

Ramosen lanak daude eskegita. Bergaran ere bi erakusketa daude: batetik, Nahikari tabernan, Jesus Mari Agirreren margolanak daude ikusgai hil bukaera arte. Bestetik, Bergarako margolariek urtero egiten duten erakusketa ere zabaltzeaz dago. Datorren egubakoitzean izango da hori, hilak 16, eta hil bukaera arte egongo da ikusgai kultura etxean honako ordutegian: astelehenean egubakoitzera, 18:00etatik 21:00etara eta zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara.



Bergarako Nahikari tabernan Jesus Mari Agirreren lanak daude ikusgai.



Erosten jakin:

ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU

 **EROSKI**
Erosten jakin

Angela Estetika Zentroaren Zerbitzu berria Arrasateko Iturriotz 35ean

**Argaltzea eta gorputz tratamenduak
Medikamentu eta orratzik gabe**

- Zelulitisa eta "laranja azala" izeneko efektua dira emakume askok izaten dituzten arazo antiestetiko handienak. Hautentzat ere badugu irtenbidea: loditasuna, tinkotzea, tonifikazioa, hanka nekatuak eta denetariko gorputz arazoak.
- Lan egiteko modua oso erraza da. Problematika mota hori lantzeko 5 aparatua ditugu. Astean bi aldiz landu ostean irtenbidea ematen diogu (gehenez 8 saio hileko).
- **Tarifa finkoa: 60 € hileko.**
Hilabete honetan, matrikula doan (40 €).
- Eskatuz gero, zure zerbitzura egongo diren bi dietistaren aholkularitza jasotzeko aukera izango duzu.




Angela Estetika Zentroaren Zerbitzu berria:
Iturriotz 35 - 607 59 64 29
Eta betiko lekuan ere bai:
Ferrerias 35 - 943 79 88 23
www.angelaestetika.net

**Gabonetan
oparitu edertasuna**



Tratamendu bereziak egiteko opari-txartelak

Txokolate bidezko tratamendua

• Harri bidezko tratamendua

• Eta beste tratamendu batzuk

Etorri eta informa zaitez konpromiso gabe!




Erregalu kaxak, saskiak eta otarrak prestatzen ditugu, zuen bezero, bisita, lagun edo familiakoei opari eder bat egiteko.

Oparien osagaiak aukeran libre uzten ditugu, nahi duzuen produktuekin osa ditzazuen.

Euskal Herriko hainbat produktu sartzeko aukera duzu saski eta kaxetan.

Aurrekontua zuen aukeraren arabera prestatuko dizuegu.



Gatzagako otarrak

Zorionak eta urte berri on!

LANDAKO ERAKUSTAZOKAN HIRUGARRENEZ | IBARREKO SORTZAILEEN LANEK HARRERA ONA IZAN DUTE LANDAKO GUNEAN

Berrogeigarrenean bigarrena izan da egunik jendetsuena denen ikuspegitik

Eguena zoramena izan zen Landako gunean. Horrela adierazi dute erakusle guztiek, baita, noski, Debagoiendarrek ere. Eurekin izan gara Durangon

Marijo Deogracias

Eguaztenean ikasleak izan ziren nagusi Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan. Hurrengo egunean, egunean, nahiko lan izan zuten bertaratutakoek Landako guneari buelta emateko. "Zapatuan ere egunean besteko jendetza espero genuen antolazaille eta parte-hartzaileek, baina uste baino bisitari gutxiago izan zen Landako gunean", adierazi dute Azoka antolatzen duen Gerediaga Elkartetik. Hala ere, euskaltzaleen topagune bihurtu dela ezin da ukatu eta horren testigu izan dira gurekin aritu diren eskualdeko sortzaileak eta hara egindako bisitan ikusi ditugun lagunek esandako hitzak. Elea argitaletzeko **Iñaki Mendizabal** gustura zegoen, "iazko antzera joan dira salmentak eta gustura, gurea lako argitaletxe txiki batentzat nahikoa", adierazi zigun. **Goizalde Landabaso** zuen ondoan. Euskadi Irratiko lana amaituta "azkanean! Egunero izan naiz Landakon **Lorea Madina** lankidearekin eta erabat nekata nago", esan zigun Elearekin



TXELU ANGOITIA

Aurten kaleak izendatzeko era aldatu dute Gerediagakoeak. Lekua betetzen dute, baina ez dira leku guztietatik ikusten.

Eguaztenean ikasleak, egunean jende guztia eta handik aurrera lasai joan dira Azoka egunak

Jat idatzi duen kazetariak. Nekea bai, baina zapatu gaueko arrastoak ere baziren.

Han ondoan Testuen Hotsak eraskumahaian **Ubane Uzin** zegoen. Berak ere neke aurpegia zuen, eta "askotan esan izan dugu beherakada etorriko zela eta jada iritsi da", komentatu zigun. Egia esateko, atzo jende oso gutxi zego-

en Landako gunean. Eguenean bete-beterik egon zen Azoka eta bazirudien zapatuan ere horrela izango zela, baina aurten ez da jendetzarik izan 40. Azokan.

Horrek, ordea, badu bere alde ona. **Juan Martin Elexpuruk** esan zigun legez, "oraintxe ondo baino hobeto dago azoka erakumahaian zehar ibiltzeko". Ikus-

miran harrapatu genuen bergararra domekan. Badihardugu elkartearen erakusmahaietan Eibar, Bergara eta Aramaioko lanak izan ziren nagusi. "Hiru bat hiztegi saldu ditugu, baina ez, sinadurarik ez dut egin", aitortu zigun Elexpuruk.

Itxi da hortaz, euskaldunen Meka. Hurrengo 41.a izango da.

• AZOKAREN BUELTAN IZAN ZIREN BESTELAKO EKITALDI BATZUK



JOSETXO ARANTZABAL

RIP PLATERUENEAN. Goienak eta Gaztelupeko Hotsak elkarlanean egindako RIP taldearen gaineko DVDa aurkeztu zuten zapatu arratsaldean Durangoko Plateruena kafe antzokian. Landako gunean saldu ziren DVDen artean salduenetarikoa izan zen mondragoetarren gaineko lana. Ubane Uzinek esan digunez, 2.000 inguru DVD erosi ziren.



JOSETXO ARANTZABAL

EGITARAU BETE-BETEA. Gerediaga Elkartek antolatutako egitarau zabalaz gainera, Landakon hainbat ekin-tza izan dira, batzuk argitaletxeek antolatuta -*Nabarra* aldizkariaren eraskumahaian karikatutarak egiten ibili dira-. Irudian txotxongilo saioa duzue, egubakoitzean izan zena Azokako kaleetan zehar.



TXELU ANGOITIA

AHT-REN KONTRA. AHT Gelditu! Elkarlanean taldeek egun arratsaldean egin zuten manifestazioa. Durangoko Azoka hartzen duen Landako gune parean egin zuten agerraldia. *AHTrik ez* zioen pankarta erraldoia zabaldu zuten ate parean Durangaldeko Elkarlanean taldekoek, eskualde horretako gaztetxeetako kideek lagunduta.

40. DURANGOKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

• DEBAGOIENDARRAK IZAN ZIREN ERAKUSMAHAJETAN EUREN LANAK SINATZEN



TXELU ANGOITIA

Gose hirukoa Landako ondoko Olma Tximiniaren azpian.



TXELU ANGOITIA

Ibaizabalen erakusmahaietan harrapatu genuen Juan Carlos Irizar.

• AZOKAREN GAINEAN

GOSE HIRUKOA

Iñaki, Ines eta Tadeos egunean izan ziren Oihukaren erakusmahaietan Gose taldearen lana sinatzen. "Giro bikaina egon da, jendetza itzela. Lastima da urtean zehar euskal kulturak hainbeste jarraitzaile ez izatea. Gure lana ondo saldu da. Astelehen Plateruenean jo genuen eta horrek lagundu egin du".

JUAN CARLOS IRIZAR

Menditik itsasora azken bilduma izan zuen oñatiarrak Azokan. "Giro oso ona egon da. Oso aberatsa da horrelako topaleku bat izatea eta egile moduan, nire jarraitzaileekin egotea ere aberasgarria da oso. Hala ere, kafetegia faltan bota dut azoka barruan. Totiren eta Benitoren lanak erosi ditut, besteak beste".

JOSE ANTONIO AZPIAZU

Egubakoitzean bere liburua sinatzen izan zen Durangon. "Giro polita egon zen, aurreko egunean baino jende gutxiago; ibiltzeko hobeto. Konturatu nintzen sortzaileak gero eta gehiago joaten direla Azokara, erakusmahaietan sinatzen ari zirenen asko. Nik neuk *Avui* aldizkaria eta txistu musikaren diskoa erosi nituen".

JOXE ARANZABAL

Eguenean izan zen azokan Joxe. *Medikuak esan dit minbizia dudala* liburua sinatzen izan zen, Miren alabarekin. "Sinatu, liburua gutxi sinatu nituen, sei, baina, hori bai, jende ugariarekin egin nuen topo". Horretarako izaten da Durangoko Azoka, aspaldiko lagunak ikusteko eta elkarren berri izateko.

MAITE TOLEDO

Ametsaren aro berria komikiaren istorioetako bat idatzi du Maitek eta egunean izan ginen Azokan berekin. "Postuko saltzaileak esan dit oso harrera ona izan duela komikiak", esan zigen. Berak ere egin zituen hainbat erosketak: Mikel Laboren diskoa, Lutxo Egiaren liburua, eguraldiaren gaineko beste bat...



JOSETXO ARANTZABAL

Piraten historiak eraman zituen Azokara Jose Antonio Azpiazuk.



M.D.

Jaione Izazelaia harrapatu genuen Badiharduguren erakusmahaietan.



TXELU ANGOITIA

Joxe Aranzabal, Miren alabarekin, Elkar-en erakusmahaietan izan zen.



TXELU ANGOITIA

Saure argitaletxearen erakusmahaietan harrapatu genuen Maite Toledo.

smsoinu

Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

7505

zenbakira

Deiaren prezioa:
0,90 + BEZA

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

OHARRAK

1. BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonora bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragari
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.

2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatzea. GPRS sistema aktibatzeke, jarraitzen zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematean doan da eta Kb jaisiera bakari ordaindu behar duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sistemak alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora. / * Vodafone: deitu 123-ra. / * Movistar: deitu 009-ra.

3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu **902 01 21 48** telefonora.

4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurria egin dituzko abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileak eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

ABESTIAK POLIFOKOAK (sms 1) Abestiaren izena (Abeslaria) | KODEA

<p>Himnoak Eibar EIBAR Athletic Club BILBAO Osasuna OSASUNA Real REAL</p> <p>Pop-Rock Aitorrena (Hertzainak) AITORMENA Aizkolari (Kortatu) AIZKO Amore amore (Kandabeko beste) AMORE Bi Minutuero (Hertzainak) BIMINU Dub manifest (Femen Mugimendua) DUB Egunerro (Hertzainak) EGUNERO EH Sukarra (EH Sukarra) SUKAR Etsi dicen merda, nosotras amen (La Polla) KELLOS Enamorado de la muerte (ESP) ENAMO Etorkizuna (Etsaiak) ETORKI Ezer ez da betiko (Ken?) EZER Gora Herria (Negu Gorriak) GORA</p>	<p>Hator Bel-Air (Bide Ertzean) BELAIR Haizea (Ken?) HAIZEA Hegal egiten (Itxoi) HEGAL Ikusi (Dokimua Tremena) IKUSI Nargia (Ken?) KEN Inpernuen ate joka (Gatibu) INPER Jokin Urami Hitzak (Bide Ertzean) JOKIN Kaixo (Ireri) KAIXO Lau Teilatuta (Itxoi) LOTOZLAU Laztana (Luzen) LAZTA Lotuta egon arren (Kokain) LOTUTA Loreboa (Kokain) LOREA Marea Gora (Itxoi) MAREA Musturrek sartunde (Gatibu) MUSTURREK Nicaragua (Kortatu) NICA No time for love (Hertzainak) NOTIME Salve (La Polla) SALVE Sarri Sarri (Kortatu) SARRI</p>	<p>Sorginen leizean (Eskola) SORGIN Txabok (Zarama) TXATXOI Txus (La Polla) TXUS</p> <p>Trikitixa Bexamela ta pastela (Maketa ta bolari) BEXAMELA Bokespok (Kopa Junkera) BOKESPOK Hik lan eta nik jai (Tapia) HIK Itsas ontzi baten (Kaxana) ITSAS Kupela (Egalea eta Larrilaga) KUPELA Mila galeria (Añitz / Mader) MILAI Nirekin (Gozategi) GOZATEGI Ny Hirahira (Kopa Junkera) HIRA Txanpon baten truke (Añitz / Mader) TXANPON</p> <p>Folk Arratsalde honetan (Sarotan Bete) SOROTAN Bai euskarari (Pantxo) BAI Bakezaleak (Benito Lertxundi) BAKE Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) BIZKAIA</p>	<p>Eperrak (Añitz / Mader) EPERRAK Euskal Herria Euskaraz (Osakari) EUSKAL Euskaldun barenaren balada (Osakari) EUSKALDUN Ez da posible (Raper Ondokil) POSIBLE Furra Furra (Osakari) FURRA Galziara noa (Osakari) GALZIARA Gernikako Arborea (Goratzal Mendib) GERNIKAI Haika (Mikel Laboa) HAIKA Izarraren hatza (Xabier Lete) IZARREN Lepoan hartu ta (Pantxo/Petzi) LEPOAN Marinelaren zai (Sarotan Bete) IMARINE Nere herriko neska maite (Benito Lertxundi) NERE Non geratzen den denbora (Mikel Laboa) NON Oñ Ama Euskal Herria (Benito Lertxundi) OIAMA Tira (Osakari) TIRA Txatxamatxalintatu (Mikel Urdangarain) TXATXA Txoria txori (Mikel Laboa) TXORIA Zaindu maite duzun hori (Raper Ondokil) ZAINDU</p>
--	--	--	--

LOGOAK (sms 1) **JOKOAK** (4 sms)

<p>LAU1 </p> <p>LAU3 </p> <p>NUKLEAR </p> <p>LORA </p> <p>SORGIN </p> <p>ARRANO </p>	<p>SUDOKU </p> <p>BARONROJO </p> <p>BOINK </p> <p>RALLYDELUXE </p> <p>FUTVOLEY </p> <p>SOBALL </p>
--	--

SOINUAK (2 sms)
Soinu izena | KODEA

Irritzia | IRRITZI
Txalaparta | TXALAPA

...ASKOZ GEHIAGO GURE WEBGUNEAN www.smsoinu.com



JOSETXO ARANTZABAL

Poliki-poliki gero eta ezagunago egiten ari dira Berako Sixty Sexers.

Sexua eta rock-and-rolla Sixty Sexers eta Torazinasekin

Jende urritasunaren hoztasunaren aurka, Torazinasen letra pornografikoek berotu zuten giroa egubakoitzean Gaztelekuan

Non. Oñatiko Gaztelekuan.

Zenbat jende. 80 bat lagun.

Iraupena. Bi ordu eta erdiz aritu ziren gitarra astintzen.

Jon Berezibar

Jende gutxirekin baina ganorazko rock-n-roll jaialdia egin zuten Oñatiko Gaztelekuan Sexy Sexters eta Torazinas taldeek. Irekitzeko lana Berako Sixty Sexers taldeak hartu zuen. Poliki-poliki gero eta ezagunagoa egi-

ten ari da rockero hauen izena. Gure Irratiaren aldeko diskoan kaleratutako abestiarekin egin dira ezagun eta Oñatin zer egiteko gai diren erakutsi zuten: zuzeneko bizia eta ikuskizuna, batez ere abeslariaren eskutik. Hasiberriak diren arren, kontzertuetako moduko emanaldia egin zuten nafarrek.

SEXUA, SEXUA ETA SEXUA

Sexua, drogak eta rock-and-rolla oihutik azken bien beharrik ez ei dute Torazinaseko kataluniarrek. Gai bakarra sexua eta hel-

buru bakarra ikuskizuna. Discipulos de Dionisos taldearen jarraitzaile sutsuak izanda ez zuten *porno-punkaren* erregeen besteko ikuskizunik eskaini, baina ez zuten huts egin probokazioan. Tamalez jende gutxik erantzun zion Reuseko talde honen deiari, erdi hustu egin zen-eta Gaztelekua. Hala ere, geratzeko aukera egin zutenek jaialdi bikainarekin gozatzeko aukera izan zuten, gutxi damutuko ziren. Punk-rock klasikoa egiten dute, baina letrek eta eszenaratzeak beste talde askok ez duten freskotasuna ematen diote Torazinasen proposamenari. Oraingoz disko bakarra daukate kalean, H Recordsekin plazaratu zutena, baina makinatxo bat zuzeneko egin dituzte dagoeneko.

'Seussen Mundua'-ren aurre estreinaldia egin zuten atzo Santurtzin

Serantes aretoan aurre estreinatuta zuten. Oraindik "orrazteko" dagoela aitortu dute Bergarako Orfeoiko kideek

Monika Belastegi

Valen Moñuxek, *Seussen Mundua* musikalaren zuzendari artistikoak esandako hitzak dira: "Aurre estreinaldian oraindik ere gauza batzuk orrazteko daudela ikusi dugu". Atzo egin zuten musikala lehenengoz ikusleen aurrean. Santurtziko Serantes aretoan izan zen eta eurak hainbat gauza hobetzeko daudela esan arren, ikusleak gustura asko atera ziren emanalditik.

Aurre estreinaldia atzo izan zen arren, egunean hasi ziren dekoratua muntatzen Serantes aretoan. Horrez gain, egubakoitz eta zapatua ere han eman zituzten, entseatzeko. "Bergaratik goizeko zortzietan atera eta arratsaldera arte egon gara entseatzeko", azaldu digu Valen Moñuxek.

20 musikaririk, 31 umek, 54 helduk, 7 dantzarik eta 24 bakarlaririk egiten dute lan musikalean eta horiei aurre prestaketa lanak egiten dituzten kideak gehituz gero, multzo handia dira. Hala, Santurtzira joateko bi autobus antolatu dituzte eta beste bi kamioi instrumentuak eta dekoratua eramateko.

EUSKALDUNA JAUREGIRA

Egubakoitzean egindako lehenengo entsegua "kaotikoa" izan zen Moñuxen esanetan: "Berandu hasi ginen, kable gabeko mikrofonoekin arazoak izan genituen, soinua ez zen ona... Bigarren egunean hobeto jardun genuen eta musikala birritan egin ahal izan genuen.

Estreinaldi handia Bilboko Euskaldunan egingo dute hilaren 27an, 28an eta 29an Serrano Produzioak aurkeztuta.



BENITO CANTERO

Atzo egin zuten aurre estreinaldia Santurtziko Serantes aretoan.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Jon Sarasuaren hitzaldia bihar, Bergarako Herri Eskolen barruan

Bazterreko herrien pentsamendua aztertuko du Sarasuak; eguenean, autoeraketa gaia jorratuko dute

Edu Mendibil

Bergarako Herri Mugimendua antolatutako Herri Eskolen barruan, Jon Sarasuak *Bazterreko herrien pentsamendua* izenburuko hitzaldia egingo du bihar, martitzena, kultura etxean, 19:00etan.

Eguenean, hilaren 15ean, berriz, *Auto-eraketa* gaia jorratuko du Lanki Ikertegiko kide batek, ordu eta toki berean.

Herri Mugimenduan bilzen diren taldeek antolatuta, hainbat ikastaro izango dira ikasturtean zehar. Antolatzaileen arabera, herritarren jakinmina asetzeko, mundua hobeto ezagutzeko eta ikuspegi kritikoak garatzea da herri eskolen

helburua. Horrela, gai ezberdinei buruzko ikastaro, hitzaldi, mahai inguru, zinema emanaldi eta abar antolatuko dituzte Herri Mugimenduko taldeek ikasturtea amaitu bitartean.

Antolatzaileak pozik daude jasotako erantzunarekin. Urrian *Euskal Herriko historia* izan zuten aztergai eta oraingoan *Gizarte pentsamenduari sarrera* izan da jorratutako lana. Azaroaren amaieratik abenduaren 15era arte bost hitzaldi antolatu dituzte.

EKINTZA OSAGARRIAK

Hitzaldiekin batera, ekintza osagarriak antolatzen dituzte, zinema emanaldiak tartean.

Interesa duen edonork har dezake parte eskoletan. Izene-matea 695 72 64 94 telefonoan edo herrieskolak@euskalerrria-org helbidean egin daiteke. Argibide gehiago www.herrieskolak.org web orrialdean eskura daitezke.

Hurrengo baterako, emakumea, ingurugiroa, munduaren ikuspegi kritikoa, artea edo literatura lantzeko asmoa daukate.

Labur

Aterkings eta Señor No taldeak Elgetako Espaloian, egubakoitzean

Aterkings eta Señor No taldeek Elgetako Espaloia kafe antzokian joko dute egubakoitzean, hilaren 16an, 22:30ean.

Aterkings Markinako taldeak *Rock & roll* diskoa kaleratu zuen aurtengo martxoan Gaztelupeko Hotsak disketearekin. Urdulizko Tio Pete estudioan grabatutako lana da.

Señor No donostiarrei dagokionez, ibilbide luzea duen taldea da, gure artean aski ezaguna eta jarraitzaile ugari dituena. Kontzerturako sarrerak 6 eta 8 eurotan salgai jarriko dituzte.

Gabonetako kontzertuak aste bukaeran, Bergaran eta Oñatin

Bergarako Udal Musika Bandak, Aritzetak, Orfeoia eta Orkestra Sinfonikoak Gabonetako kontzertua eskainiko dute zapatuan, hilaren 17an, Udal Pilotalekuan, 22:30ean.

Oñatin domekan, hilaren 18an, izango da Gabonetako kontzertua Mikel Deunaren parrokiaren, 19:00etan. Oñatiko Musika Banda, txistulari taldea, Oñati Abesbatza, parrokiako korua, Ganbara Abesbatza, Ganbara Txiki Abesbatza eta Txantxiku Ikastolako abesbatzak hartuko dute parte.

Zeinuen hizkuntza ikastaroa izango da Bergarako Aransgi eskolan

Bergarako Udaleko Gizarte Ongizate sailaren laguntzarekin, gorrekin komunikazio ahalmenak hobetu nahi dituztenendako zeinuen hizkuntza ikastaroa antolatu du Aransgik.

Ikastaroa hogeita hamar ordukoa izango da. Eskolak Bergarako Aransgi ikastetxean izango dira, urtarrilaren 10etik aurrera, martitzeneko, 19:00etatik 21:00etara. Izenematea zabalik dago eta interesatuek Aransgira edo 943 76 27 03 telefono zenbakira joko dezakete argibide eske. Plaza mugatuak izango dira.

Hitzorduk



AMODIOZKO GUTUNEN LEHIAKETA DEITU DU JARDUNEK |

Lanak jasotzeko epea urtarrilaren 5era arte dago zabalik

Bergarako Jardun euskara elkarteak Amodiozko Gutunen XIV. Lehiaketa deitu du. Lanak entregatzeko epea urtarrilaren 5era arte izango da zabalik. Irabazleak 450 euro jasoko ditu eta beste hainbat sari banatuko dituzte. Ohikoa denez sari banaketa otsailaren 14an egingo dute.

Era berean, SMS bidezko maitasun mezuen lehiaketa ere egingo dute. Mezuak urtarrilaren 1etik 15era bidali beharko dira ondoko telefono zenbakira: 605 71 24 69.

Argibideak Bergarako Jardun elkartearen, 943 76 36 61 telefono zenbakian.

ZINEMA |

• *Cinderella man* filma emango dute gaur, astelehena, Oñatin

Kultura etxean emango dute film hori gaur, astelehena, 19:30ean.

• *En tierra de nadie* filma emango dute Elgetan

Espaloia antzokian emango dute film hori etzi, eguaztena, 21:30ean.

ERAKUSKETAK |

• Euskarazko jostailuen erakusketa Eskoriatzan

Euskarazko jostailuen erakusketa Eskoriatzako kultura etxean abenduaren 12ra arte. Umeendako euskarazko jostailuak eta CD-Romak erakutsiko dituzte gaur, 17:00etatik 20:00etara.

IKASTAROAK |

• Hika ikastaroa antolatu du Jardunek Bergaran

Hika ikastaroa antolatu du Jardunek Bergaran. Abenduaren 12, 13, 14, 15, 19, 20, 21 eta 22an izango dira eskolak kultura etxean, 19:00etatik 21:00etara, Juan Martin Elepurrekin. Argibideak: 943 76 36 61.

• Hainbat ikastaro Kultura zerbitzuaren eskutik

Barreterapia ikastaroa urtarrilaren 9tik martxoaren 27ra, astelehenean, 19:00etatik 21:00etara; sukaldaritza bege-

tarianoa eta nutrizioa eguaztenetan, 19:00etatik 21:30era eta sabel dantza ikastaroa egubakoitzean, 19:00etatik 21:00etara. Izen emateko epea abenduaren 23ra arte dago zabalik. 943 77 91 58.

IKUSKIZUNAK |

• *Baserría zarzuela*

Baserría euskara hutsezko zarzuela antzeztuko du Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak abenduaren 16an eta 17an, Amaia antzokian. Sarrerak salgai daude egunero txarteldegian, 18:00etatik 20:30era.

• *Kontzertuak Aretxabaletan* Mari Karmen Azpeitia organo jotzailearen emanaldia egubakoitzean Andre Mariaren Zeruratze parrokiaren, 19:00etan. Kokein taldeak Ezkutu tabernan joko du egun berean, 22:30ean.

• *Musika eskolako haurren emanaldia Antzuolan*

Musika Eskolako haurrek kontzertua egingo dute hilaren 15ean, eguena, 18:30ean, udallexko osoko bilkuren aretoan. Antzuolako 25 bat ikasle hartuko dute parte, 8 urtetik hasi eta 15era bitartekoak. Askotariko instrumentuak entzuteko aukera egongo da.

• *Pailazoak Oñatin*

Poxpolo, Mokolo eta konpainia pailazo taldeak emanaldia

egingo du zapatuan, hilaren 17an, Zuazola Institutuko aretoan, 17:00etan. Ondoren, gaitaina erre jana ere egingo dute hurbiltzen direnendako.

HITZALDIAK |

• *Nafarroaren historiaren gaineko hitzaldia Eskoriatzan* *Historia de Navarra: el estado vasco* izeneko hitzaldia egingo du Nabarralde elkarte kide Mikel Soraurenekin Ibarraundi museoan, hilaren 16an, 22:00etan.

• *Atzegikoak Elgetan*

Gurasoei zuzendutako hitzaldia gaur, hilak 12, Eskolan, 18:30ean.

• *Jose Mari Roteta Oñatin*

Lana eta gazte baten etorkizun profesionala hitzaldia egingo du hilaren 14an, Txantxiku ikastolan, 18:30ean.

• *Gizentasuna, anorexia eta bulimia*

Ana Elbusto adituak hitzaldia egingo du hilaren 15ean, eguena, Txantxiku ikastolan, 18:30ean.

LEHIAKETAK |

• *19. Jokin Zaitegi sariketa*

Jokin Zaitegi sariketa deitu dute AED elkarteak eta Elkarlanean etxeak, Literaturako Nobel sariak euskaratzeko. www.elkarlanean.com/jokin-zaitegi web orrialdean argibideak.

Zorion agurrak



ARRASATE
Xabier Aliaga
Abenduaren 10ean, 20 urte. Zorionak eta urte askotarako A/I! Koadrilakoak.



ARRASATE
Igor Errasti
Abenduaren 11n, 3 urte. Zorionak! Arizmendiko Sanvi Txikiko lagunak.



ARRASATE
Oxel Sanz
Abenduaren 12an, 2 urte. Zorionak! Arizmendiko Sanvi Txikiko lagunak.



ARRASATE
Marta Rubia
Abenduaren 12an, 3 urte. Zorionak! Arizmendiko Sanvi Txikiko lagunak.



ARRASATE
Iker Barandiaran
Abenduaren 14an, 33 urte. Zorionak Punk-Rocker-Star. Noiz arte mototzaz?



ARRASATE
Jordi Carrera
Abenduaren 14an, urtebetetzea. Zorionak! Koadrilakoak.



ARRASATE
Patricia Carabias
Abenduaren 17an urteak. Zorionak eta urte askotarako! Koadrilakoak.



ARRASATE
Enaitz Arkauz
Abenduaren 17an, 3 urte. Zorionak, Arizmendiko Sanvi Txikiko lagunak.



ARETXABALETA
Joaquin Barbero
Abenduaren 18an, 99 urte. Zorionak! Familia osoaren partetik.



ARETXABALETA
Irati Garai
Abenduaren 18an, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Etxeko guztiak.



BERGARA
Paco Moreno
Abenduaren 12an, 47 urte. Urte askotarako! Emaztea eta alabak.



BERGARA
Maitane Suinaga
Abenduaren 12an, urte bat. Zorionak eta urte askotarako. Etxekoak.



BERGARA
Mariñe Gonzalez
Abenduaren 16an, 7 urte. Zorionak eta muxu bat! Gurasoak eta Miren.



BERGARA
Garazi Ibarra
Abenduaren 16an, 7 urte. Zorionak! Gurasoak, Oihan eta Unai.



OÑATI
Irati Elortza
Abenduaren 8an, 8 urte. Zorionak, familia: bereziki Irene eta Ione.



ELGETA
Enrique Elkoro
Abenduaren 13an, urteak. Zorionak mutiko! Lagunak.

Zoriondu ARRASATE IRRATIAN



Ikaskideak, lagunak edo senitartekoak zoriondu nahi badituzu, **ARRASATE IRRATIAK** egunero ematen dizu aukera hori.

Bidali eskaria:
irratia@goiena.com
helbidera
edo deitu 943 71 17 31
telefonora.

Egunero,
zorion agurren tartea
ARRASATE IRRATIAN

FM107.7
ARRASATE IRRATIA


Jaiotakoak



Jokin Madina Korta
Oñati • 3,280 Kg. Abenduak 5
Gurasoak: Alazne eta Iñigo (Oñati).
Argazkian: Jokin amaren besoe-tan, bapo lo.



Jon Lasagabaster
Aranburuzabala
Eskoriatza • 3,240 Kg. Abenduak 6
Gurasoak: Oihana eta Pedro (Oñati).
Argazkian: Jon bapo lo bere kuman.



ESKELAK
ASTELEHENEKO
GOIENKARIAN

82 euro
943 25 05 01

%30

Happy
New Year



[FISCHER]
Pack Ski-CX4.4FR+FS10

LEHEN:

ORAIN: ~~345 €~~

239,95 €

SPORTLAND
FORUM SHOPS

SPORTLAND ARRASATE Garibai Etorbidea, 2-6
www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Gaur irratian

Arrasate Irratia

FM 107.7

'Igo autobusera' | 10:30

Baserria zarzuela mintzagai

Arrasateko Izaskun Murgia elkarte lirikoak Baserria zarzuela estreina-tu du asteburuan. Datorren aste-buruan ere egingo dituzte emanal-diak. Horren harira protagonistekin berba egingo dute irratiko kideek, Mikel Izurategirekin, esaterako.

Oñati Irratia

FM 107.4

'Udazkeneko saioa' | 12:00

Saharara produktuak bidaltzeko kanpaina

Oñati Irratiko kazetaria NUBI elkar-teko lagunekin elkartuko da. NUBI elkartekoak Saharan egon berri dira eta hango egoeraren berri emango dute. Horrez gain, herrial-de horretara produktuak bidaltze-ko kanpainaren gainean ere luze berba egingo dute.

Radio Euskadi

FM 98.2

'Boulevard' | 09:30

Leitzatik euskal txerriaz jardungo dute

Euskadi Irratia

FM 104.4

'Faktoria' | 10:00

Baserritarren kanpaina berriaz arituko dira

Loiola Irratia

FM 99.8

'Kalez kale' | 12:00

Asteburuko berrien errepasoa egingo dute

GOITB programazioa

Astelehena, 12



'Harmailatik' saioan eski tarte berezia 21:15

Arrasateko Loramendi Kirolak kirol-dendako arduradunek kontuan hartzeko zenbait gomendio emango dizkigute eski materialaren gainean.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Behazulo.
- 14:15 Eltze beroa.
- 14:30 MI.
- 14:35 Lazkao Txiki.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Munduari bueltaka: Manaslu.
- 15:30 MI.
- 15:35 Lazkao Txiki.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Ilunpean.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 MI.
- 16:35 Lazkao Txiki.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Didjeridu.
- 17:30 Motzean.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Berbaire.
- 18:15 Jaun ta jabe.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 16 mm.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Harmailatik.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Harmailatik.
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 Jazz zikloa.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Amaiera.

Martitzena, 13



'Berbaire' saioan gaurkotasuna mintzagai 22:15

Marijo Deogracias kazetariak aurkezten duen saioan gaurko-tasunari gainbegiratu egingo diote ibarreko hainbat solaskidek.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazkiak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Jazz mintegia: Al Foster.
- 14:15 Zera dio.
- 14:30 MI.
- 14:35 Lazkao Txiki.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Elkartasun bideak.
- 15:30 MI.
- 15:35 Lazkao Txiki.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Harmailatik.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 MI.
- 16:35 Lazkao Txiki.
- 16:45 Albisteak.
- 17:00 Jazz.
- 17:30 Danbaka.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Erreportajea: Loizu hiltegia.
- 18:15 Munduari bueltaka.
- 18:45 Albisteak.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 Harmailatik.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Ilunpean.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Berbaire.
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 Behazulo.
- 23:45 Berriak.

Eguaztena, 14



Debagoieneko berri guztiak albistegietan 19:45

Deiane Arrietak eta Julen Iriondok aurkezten dituzten albistegietan ibarreko albiste guztiak jorratzen dituzte egu-nero.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Musika saioa.
- 14:30 MI.
- 14:35 Lazkao Txiki.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Teknopolis.
- 15:30 MI.
- 15:35 Lazkao txiki.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Behazulo.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 MI.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Berbaire.
- 17:30 Zera dio eta Motzean.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 16 mm.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 Didjeridu. Gazteei zuzendutako saioa.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Teknopolis.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 16 mm: Iñigo Mugaruzaren film laburra.
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 Erreportajea.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Amaiera.

Eguena, 15



Durangoko Azokaren gaineko saio berezia 23:00

Euskal liburu eta disko azoka egin berri dute Durangon, eta azokaren gaineko guztiak izan-go dira ikusgai saio berezian. Nerea Isastik egingo du.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Erreportajea.
- 14:15 Motzean.
- 14:30 MI.
- 14:35 Lazkao Txiki.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Jaun ta Jabe.
- 15:30 MI.
- 15:35 Lazkao Txiki.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Jazz mintegia.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 MI.
- 16:35 Lazkao Txiki.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 16mm.
- 17:30 MKT musika.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Elkartasun bideak.
- 18:15 Iparrorratza.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 Erreportajea.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Jaun ta jabe.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Didjeridu.
- 22:45 Albisteak.
- 23:00 Durangoko azoka.
- 23:30 Berriak.
- 00:00 Amaiera.

Egubakoitza, 16



Jazz mintegia musika adituentzat 19:15

Zarautzen izandako jazz mintegiaz gozatzeko aukera izango dute musika adituek. Ordu erdiko saioa eskainiko dizue Goiena Telebistak.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazkiak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Ikuskizuna.
- 14:15 Musika saioa.
- 14:30 MI. Eguraldia eta zerbitzuak.
- 14:35 Lazkao Txiki.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Iparrorratza.
- 15:30 MI.
- 15:35 Lazkao Txiki.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Didjeridu.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 MI.
- 16:35 Lazkao Txiki.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Berbaire.
- 17:30 Eltze beroa.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ilunpean.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 Jazz mintegia.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Behazulo.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Ilunpean.
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 16mm.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Amaiera.

Kamera aurrean



"Natura islatzen dut nire margolanetan. Izan ere, naturarekin harreman estua dut eta hori da gustuko dudana"

GURUTZE MUJICA |
MARGOLARIA
Berriak, 2005-12-07



"Ezin diogu inori tontorrera iritsiko garelara ziurtatu, baina ahalegin guztiak egingo ditugu"

OIER PLAZAOLA |
MENDIZALEA
Berriak, 2005-12-06

Durangoko Azokako giroa eta eskaintza irudietan

SAIO BEREZIA:

Eguenean, abenduaren 15ean, 23:00etan
Kazetaria: Nerea Isasti.

Asteburuan saio berezia berriro ikusteko aukera izango da.



Ikustekoa!

Abenduaren 12a: 068 zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA

Harpidedunen

txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, abenduak 12, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!

BALDINTZAK

- Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Eskaintza:

Harpidetza kuota, 35 euro

2005 osoko harpidetza kuota: 35 euro.

ASTELEHENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.
Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**

150 euroko BONU bat, Bergaran, Bidekurutzeta 7an dagoen LAIÑO dendan erosketak egiteko

- Itziar Zabala Arbulu (Elgeta)

Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAN bi menu jateko. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

- Rufina Mendieta Garmendia (Arrasate)

Lau gonbidapen Elgetako Espaloian izango den Señor No eta Aterkings musika kontzerturako. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio)

- Jose Ramon Irigoien Unzueta (Bergara)
- Alberto Etxeberria Arrese (Oñati)

Abenduaren 19ko sariak



- Sei gonbidapen **EIBAR-LORCA** futbol partidua ikusteko .
- Bi gonbidapen **ELGETAKO ESPALOIAN** izango den *Shakespeare gutxi gorabehera* antzerkirako, Ttanttaka taldearen eskutik.



DOMINIKAR ERREPUBLIKARA BIDAIA ZORAGARRIA!

Bi lagunendako bidaia zoragarria zozketatuko dugu abenduaren 16an, ASTELEHENKO GOIENKARIAren harpidedunen artean. Zorte on!

Laguntzailea: VIAJES IBERIA

ETXEKO TXIKIENDA KO SARIAK



Umeentzako joko dibertigarriak eskuratu nahi badituzu, txartela bete eta zozketan sartuko zara. Bidali txartela hona: Goiena. 132 pk. 20500 Arrasate. Irabazleen izenak abenduaren 19ko Asteleheneko Goienkaria-n jakitere emango dira.

- Izen-abizenak:.....
 - Umearen adina:
 - Telefona:
 - Helbidea
 - Herria
 - Posta-kodea:
- Baldintzak:**
- Nahi beste txartel bidali ahal izango dira.
 - Txartelak jasotzeko azken eguna, abenduak 15.
 - Ez da fotokopiarik onartuko.



Hamarrekoa

ARITZ BERRAONDO | PILOTARIA

“Mox-en elkartzen gara musean egiteko; galtzen duenak tragoak ordaintzen ditu”

Oihana Elortza

1. Zer moduzkoa da Antzuolako frontoia? Ordu asko egin ditut han. Partidu gehien hantxe jokatu ditut eta entrenamenduak ere han egiten ditut. Egia esan, hobetu beharra ere badu, baina gustura ibiltzen naiz. Antzuolako umeak ez ezik, nagusiak ere ibiltzen dira batzuetan pilotan.

2. Antzuolan bizi eta antzuolan lan egin. Oinez edo bizikletan joaten zara lantokira? Autoan. Erosotasuna da arrazoia, ez beste ezer.

3. Auto onak ei dituzte pilotariak. Zuk ere bai? Ez dut batere kezarik dudana autoagatik. Gustatzen zaizkit autoak eta auto lasterketak edo rally-ak ikustera ere joan izan naiz. Autoa erosteko orduan, berriz, eroso den edo ez izaten dut kontuan eta baita segurua den edo ez ere. Kilo metro asko egin behar izaten ditugu eta autoaren segurtasunak badu bere garrantzia.

4. Nola garbitzen duzu autoa, eskuz edo makinan? Kanpoaldea garbitzeko, makinan sartzen dut.

Barrua, ordea, neuk garbitzen dut, eskuz. Gainera, gustatzen zait autoa garbi mantentzea eta sarritan garbitzen dut. Beltza da eta berehala ikusten da zikina autoan.

5. Urtero joaten zara Durangoko Liburu eta Disko Azokara? Ez naiz aspaldian joan.

6. Anai zure partiduak ikustera baino gehiagotan joaten zara zu anaia futbolean jokatzen ikustera? Aspaldian, ez bera ni pilotan ikustera ezta ni ere bere futbol partiduak ikustera. Lehengusu batek Mondra taldean jokatzen du eta hura ikustera sarriago joaten naiz anaia ikustera baino. Bestela, ia astebururo ikusten dut futbol partiduren bat telebistan. Realeko zalea naiz.

7. Zein pilotari izan da zure eredia? Retegi. Gaur egun, ordea, Martinez de Irujo pilotan jokatzen ikustea ikuskizuna da. Asko arriskatzen du eta askotan heltzen da 22ra.

8. Nolakoak dira Mox tabernako mus partitietan batzen gara batzuk muse-



Zazpi urte egin ditu Aritz Berraondo pilotari antzuolarrak Eibar-ko Aspe enpresan. Kontratu bukatu zaio eta enpresaren eskaintza berria gustatu ez zaiolako erabaki du ez sinatzea. Kontratu berrian Aspe ez zion zehaztu jokatu beharreko gutxieneko partidu kopurua. Pilotaz gain, futbola eta Antzuolako Mox tabernako mus partidak gustatzen zaizkio.

an egiteko. Galtzen dutenek tragoak ordaindu behar dizkiete irabazleei.

9. Keinurik egiten duzue? Ez, ezin dugu; galarazita dugu.

10. Zer eskatuko diozu Oientzerori? Eskatutako ezer ez zidan ekartzen eta aspaldi utzi nion zerbait eskatzeari. Hala ere, beti egoten da opariren bat; ama arduratzen da horretaz.



Biharamuna

Edu Mendibil

Altxor txiki berriak

Urteko sasoi honetan liburu eta disko zaparrada handia izaten dugu. Azken asteotan idazle eta musikari mor-do bat agertu dira komunikabideetan, euren azken lana besapean zutela. Horren berri ematen duten kazetariak mareatuta egongo dira honez gero, hainbeste aurkezpen eta prentsaurrekorekin. Idazleen eta musikarien argumentuak nahastea ez da harrizkoa zoramen honetan. **Ruper Ordorika** bere lagun **Xabier Montoiaren** azken liburua saltzen azaldu da. Montoiak ez omen ditu gustuko liburuen aurkezpenak; nahiago izaten du liburuek eurek hitz egitea. *Bingo!* Publizitate-elkarrizketekin baino gehiago fidatzen naiz hainbat lagun gomendioekin.

Euskal kulturaren ezinbesteko hitzordu eta topagune bihurtu da Durangoko Azoka azken 40 urteotan. Erromesaldia erabat jendetsua gertatu da aurrean ere. Orain, balorazioa egiteko ordua izango da.

Urteroko kontua: “*Earki gatxik*” esango dute batzuek, eta beste hainbat eszeptiko agertuko dira. Urtean zehar salmenta duin batzuei eustea eta altxor berriak agertzea lirerateke benetako egoera neurtzeko modurik fidagarrienak. **Gerediaga** elkarreko **Jon Irazabalek** aurrekoan kontaktatzen zuenez, 1970eko hamarkadan euren liburuak eta jendearen erantzunak jasotzeko borrokan zebiltzan **Pott** taldeko kideak. Zorionez, gure irlatxo honetan badira zaindu beharreko altxor txiki berriak gaur.

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko [blog komertzialak](#)

- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- E-maila onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:
www.goiena.net/blogak ·
azabarte@goiena.com ·
943 76 92 70

Goiena.net
Debagoieneko Interneteko ataria

www.goiena.net/blogak

/4quattro4	/joseba	/gutzizeder	/okipark	/udalaitz
/arregi	/BZ-sistemas	/korozabaleta	/vitoria	/irudisport
/atai	/gallastegi	/multiopicas	/pando	/ezkutuorly
/azkarate	/garaia	/ohiak	/udalatz	

Eta baita ere:

www.aizue.com
www.lilura.com
www.baster-alde.com

